

## Gerra Zibila bertsoan.



## Joseba Beltza Bengoetxea

*Historian lizentziatua*

### ***Laburpena***

Gerra Zibilari buruzko informazioa toki askotatik etorri daiteke eta bakoitzak arlo bati ematen dio garrantzia. Bertsolariena gutxi jorratu da orain arte. Haien bertsoek ez dituzte jorratzen goi-mailako gai politikoak, baina iturri garrantzitsua da gerraren egunerokoari buruz eta haren ondorioei buruz jabetzeko.

## Sarrera

Lehen mailako agiriak erabiliz egingo nuen ikerketa-lan bat aukeratu behar izan nuenean, Gerra Zibila bertsoan azaltzea erabaki nuen. Banekien behar nituen dokumentuak Xenpelar Dokumentazio Zentroan, zeina Bertsozale Elkartearen baitako tresna baliagarria den, aurki nitzakeela, eta bilatzeari ekin nion. Gerra Zibilean kantaturiko edo jarririko bertsoak aurkitu nahi nituen; Gerra Zibila aukeratu nuen epe mugatu eta ezberdindu batez ari garelako, eta, bestalde, gerrak iraun zuen bitartean sorturiko bertsoetako gaia nabarmen aldatu zelako, beste garai askotan gertatu ez dena.

Bertso gehien utzi duen gerra da oraingoan jorratuko duguna. Izan ere, nahiz eta II. Mundu Gerra bertsolari askok nozitu, Gerra Zibila pairatu zutenak baino gutxiago izan ziren, eta bertsoak idazteko joera bi sasoietan antzekoa izateaz gain, gaur egundik ere tankera bertsuan gogoratzen dira Espainiako Gerra Zibilean edo II. Mundu Gerran kantaturikoak.

Agiri edo dokumentuak ez daude urtez urte sailkaturik. Hau da, agiri juridiko-administratiboak ez bezala, bertsoak ez dira jaso izan kantatutako urtearen arabera duela gutxi arte (*Bapatean* saila). Hori dela eta, Gerra Zibilean kantaturiko edo jarririko bertsoak bilatzeko, lehenik eta behin garaian zein bertsolarik kantatzen zuen jakin beharra du ikertzaileak, eta gero liburu, garaiko egunkari eta aldizkarietan arakatu haiek sorturikoak.

Garaiko bertsolarien artean, batzuek gehiago idatzi zuten edo beste bertsolari batzuei baino bat-bateko bertso gehiago jaso izan zaie. Zenbaiten kasuan, gainera, 1936ko uztailetik hasi eta 1940 ingurura arte hutsunea nabaritzen da, mutu gelditu izan balira bezala.

Bertsotan jorratzen diren gaiak buruz, esan beharra dago gehienek gerrak dakartzan ondorioei egiten diela erreferentzia, baina jakin badakigu beste gai askori kantatuko zitzaiona garai hartan ere. Hemen dakartzadan bertsoek gerraren aspektu ezberdinak jorratzen dituzte.

Nahiz eta gehienak gerra garaikoak izan, II. Bertsolari Eguneko batzuk ere aukeratu ditut (1936ko urtarrilean jokatu zen, gerra piztu aurretik). Bertsolari Egun hartan bertsolariak gerrari kantatu behar izan zioten doinu eta neurri librean; eta interesgarria iruditu zait horiek ere lanean sartzea gero mututuko ziren bertsolarietako batzuen iritzia jakiten lagunduko digutelako eta ondorio batzuetara iristea erraztuko digutelako.

Beraz, guztira ehun eta berrogeita hamahiru bertso eta hamasei koplen aurrean gaude, berrogeita bi bertso sortatan laburbiltzen direnak. Hogei bertsolari dira bertso kantari edo jartzaileak, eta zenbaitetan, batzuen bizipenak besteenekin nabaritu arren, esperientzia ezberdinekoak dira asko eta ideologia edo pentsaera askotarikoak ere bai.

Sarrera honen ostean, Gerra Zibilera arte bertso munduak izandako bilakaera aztertuko dugu, historia bertsoetatik eraikitzeak dakartzan alde on eta txarrak ebaluatuko ditugu, eta ateratako ondorioak eta horien argudiaketa azalduko ditugu. Ondoren, zeintzuk diren ondorio nagusiak errepikatuko dugu eta, azkenik, bibliografia eta dokumentuentzako tartea iritsiko dira.

## **Bertsolaritzaren bilakaera**

Gerra Zibilaren garaiko bertsoak asko zor dio tradizioari, baina baita karlistadetatik aurrera hego Euskal Herrian gertatutako gizarte aldaketei ere. Antzeko moldeetan jarraitu zen kantatzen Lapurdin,

Nafarroa Beherean eta Zuberoan; Araban, berri samarra da bertsolaritza; eta Nafarroan ez zen ezagutu bertsolaritza “ofiziala” 1936ra arte —Euskal Herriko Txapelketekin agertuko dena—; baina Bizkaian eta Gipuzkoan, batez ere, aldatu egin zen egoera. Gizarte banatuago eta askotarikoagoa sortu zen karlistaden eta industrializazioaren ondorioz, eta, testuinguru horretan, dibertitzeko zioek beren horretan jarraitu zuten arren, aldarrikapen sozial eta politikoez gora egin zuten, bertsolaritzan barne. Bertsopaperetan gauzatu ziren aldarrikapen horiek, eta kopien bitartez lortzen zen bertsoen hedapena. Bertso-guduek behera egin bazuten ere, bertso jarriek sekulako loraldia izan zuten.

Orduko bertsolari eskolatu gabeek ez zekiten idazten, eta senide, lagun edo ezagun baten premia izaten zuten buruan egositako bertsoak papereratzeko, eta ildo beretik sortuko ziren bertsopaper-saltzaileak; giro horretan, eskaeraren arabera bertso jarriak egin ziren.

Jakina, aldeztu aurretik dagoeneko nahikoak izan baziren, 1876-1935 bitartean gero eta aldarrikapen gehiago izan ziren. II. Karlistadaren eta Gerra Zibilaren artean Txirrita eta Pello Otaño bertsolariak nabarmenduko ziren lan horretan. Bestalde, zehatz-mehatz ez dakigu bat-batekotasunaren osasuna nolakoa zen garai hartan, baina gora egingo zuela pentsa daiteke, hori izan baita bertsolaritzaren joera orokorra epe edo aldi gehienetan.

Aipatzekoa da bat-batekotik idatzira aldatzean bertsolaritzak historiaren kronika egiteko hartuko duen lekua, guri interesatzen zaigunarekin lotuta, hain zuzen. Aurretik ere, bertsoa berrikuntza, gertakizun eta aldaketa oro esplikatzeko ahalegintzen zen, baina ez aipaturiko bi gerren artean beste. Aldarrikapenerako eta historia kontatzeko grina hau baliatuko dugu ikerlan honetarako.

Hala ere, horiek ez ziren izan 1936rako bertsolaritzak jasango zituen eraldaketa bakarrak. Noizean behineko Lore Jokoez gain, bat-bateko bertsolaritzaren ohiko adieraztokia sagardotegi, taberna eta ostatuak ziren, ohituraz. Bufoi eskolatu gabea zen bertsolaria, jendea dibertitzeko mozkorra askotan. Joseba Zubimendik 1939an zioenez<sup>1</sup>, bertsolaria askorentzat arlote, ezjakin eta gaizki hezia zen, baina gizartearen pertzepzio hori aldatu egin zen Iñaki Eizmendi “Basarri”rekin (1913-1999). Bertsoa taberna zulotik atera beharra zegoela uste zuen Basarrik, eta hori pentsatzeko bere aurretik bertsoa duintasun kutsuz ziprztintzen ahalegindu ziren Kepa Enbeita “Urretxindorra” (1878-1942) eta Pello Otañoren (1857-1910) eragina nabarmendu zuen. Bertsolaritza-mota berri baten oinarria izango ziren Otañoren bertso-idatzien zuzentasuna eta egokitasuna eta Enbeitaren plaza-gizon izaera eta gaiari heltzeko duintasuna.

Hortaz, errealitatea moldatu nahian, Jose Ariztimuño “Aitzol” (1896-1936), Manuel Lekuona, Zubimendi, Basarri eta beste zenbaitek —Euskaltzaleak taldearen sorrera ere kontuan izan behar da— piztutako mugimenduaren lehen fruitua Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren lehen edizioa izan zen (1935eko urtarrilean). Bertsolaritzaren “profesionalizazioaren” lehen urratsa zen, bertsoa tabernatik kalera, plazara, frontoira, antzokira, zinema eta elizara ateratzeko.

Txapelketak gauza ugari aldarazi zituen gainera. Gai jartzailearen figura sortzeak gaiak aldarazi zituen; hau da, ordura arteko gai errealistak fikziozko gai bihurtu ziren. Halaber, erakunde edo talderen batek txapelketaren antolakuntzaren kargu egin beharrak bertsolarien hartu-emanak areagotu zituen. Azkenik, epailetza kualifikatuago baten exijentziak bertsoaren maila hobetzen lagundu zuen.

---

<sup>1</sup> ZUBIMENDI, Joseba: *Bertso Minez*. Alberdania, Irun, 2002. 1939an hil aurretik Zubimendik idatziriko artikuluen artean bertsoak mintzagai dituztenak aurki ditzakegu liburu honetan.

Aldaketa horiekin guztiekin, 1935 eta 1968 bitartean bat-bateko jarduna gizaratean errotzen joan zen astiro-astiro. Lehen txapelketa egiteaz gain, bertsoak leku txiki bat lortuko du hedabideetan, irrati eta aldizkarietan, esaterako.

Beraz, eraldaketa garai batean koka genezake Gerra Zibileko bertsolaritza. Gerrak berak moteldu egin zuen eraldaketa hori, baita gerra ondoko urte luzeek ere, baina, oro har, bertsoa “plazaratze” fase batean zegoen, non tradizioak sakon irauteaz gain, historia egiteko bertsoek eta bertso aldarrikatzaileek pisu garrantzitsua zuten. Gaur egungo bertsolaritzaren zenbait aspektu hasi ziren sortzen garai horretan.

### **Bertsoa dokumentu gisa**

Gerra Zibilean kantaturiko edo jarririko bertsoek badute horretatik guztitik, eta premiazkoa iruditu zait azaltzea. Bertsoak dokumentu gisa zer ekarpen egiten digun argudiatzea tokatzen zaigu orain.

Bertso idatziak, alde batetik, bat-batekoekin alderatuz gero, kopuruan gutxiago izan arren, ahoz aho ibiltzen ziren zenbait kasutan, eta buruz ikasten ziren batzuetan. Gerra ez da garairik egokiena lan horretarako, bertso jarri eta zernahi idatzi hedatzea zaila baita giro horretan, baina beste arte lan batzuen aldean (literatura adibidez, ahozkoa ez bada behinik behin) bertsoek egunerokotasunean, zaletasuna zegoen lekuetan beti ere, eragin handiagoa izango zuten. Ondorioz, bertso paperak dinamikoak izango ziren, beste idatzi batzuk baino gizarteratuagoak, eta hori interesgarria zaigu Gerra Zibila aztertzeko.

Bestalde, bat-bateko bertsoak, gutxiago iritsi zaizkigun arren, gogoratzen diren elkarrizketa edo diskurtso modukoak dira. Horietaz

baliatuko gara gizarteko pentsamoldea aztertzeko. Halaber, lan idatziek ez bezala, bertsoek eskolatu gabekoengana iristeko gaitasuna zuten; eta, gainera, funtzio bera bete zezaketen kantu eta ahozko ipuin eta kontakizunak baino bat-batekoagoak zirenez, egunerokotasunera atxikiago zeuden.

Bertsoaren eraginaren neurrian dago arazoa. Ez da gutxiestekoa garaian zegoen zaletasuna, baina gizarteko sektore handi batek bertsoari bizi ez zuela ere egia da. Batetik, euskarazko produktua izanik, hizkuntza ez jakiteak asko mugatzen duelako hartzaileen eremua; eta, bestetik, bertsoari ez delako Euskal Herri osoan txertatu historikoki.

Halaber, bertsoa beste sormen-lan batzuekin konparatuz, lotuagoa da eta horrek sortzaileak esan nahi duena mugatzen du. Alegia, puntuz puntu errimatu beharrak eta aldioro silaba neurtuetan pentsatu beharrak komunikatzailearen asmoak desitxura ditzakete, bertsolaria ez baita beti gai nahi duena zuzen esateko. Gainera, bat-batekoan aritzeak eta bidenabar kantatzeak zailtasuna areagotzen du, eta askotan lehen aipaturiko arazoa gertatzen da: nahi dena ezin esana.

Arazo horiek gutxiago nabaritzen dira bertso-paperetan, bat-batekotasunik ez baitago hemen. Bertso-paperen arazoa, eta batik bat aintzat hartuz Gerra Zibilean gaudela, bere difusio edo hedapen mugatuagoa eta denboran berantiarragoa da.

Hala ere, bat-bateko bertsoei dagokienez, gaur egunera iritsi zaizkigunak gogoangarrietarikoak eta maila jasoetarikoak dira, eta, beraz, bertsoaren izaera lotuaren edo behartuaren eragina apalagoa da bertso hauetan beste askotan baino. Kontuan izan behar da aurkezten ditugun bertso-sortak lagin bat baino ez direla, gaur egun ere ezinezkoa baita kantaturiko bertso guztiak jasotzea.

Beraz, dokumentu gisa oso erabilgarriak diren ahozko eta idatzizko testuen aurrean gaude.

## **Bertsoen eta egileen izaera**

Bertsoak segun eta nori zuzenduak dauden eta zer asmorekin sortuak diren, izaera batekoak edo bestekoak dira. Gerra Zibilean sortu eta hemen aurkezten ditugun bertsoek funtzio ezberdina betetzen dute.

Badaude senideei zuzenduriko bertsoak, azalpenak emateko bertsoak, gertaera zehatzak kontatzen dituztenak, bat-bateko elkarrizketak, bertso propagandistikoak, iritzi emaileak, goraipamenak egiteko sortuak... Era askotarikoak daude, beraz, eta beren egileek ez dute beti ideologia bera izaten. Hori dela eta, jarraian bertsolari bakoitzari buruzko azalpentxo batzuk emango ditugu.

**Xalbador Zapirain “Ataño” (lehenengo bertso-sorta):** 1912. urtean jaioa. Gerran ibili zen alde errepublikarrean, harik eta nazionalek harrapatu eta espetxeratu zuten arte, bere anaia gehienen moduan, bestalde. Gerra hasi aurretik apaiz bidea egiten hasi zen, baina garai liskartsuak iritsitakoan utzi behar izan zuen.

**Luis Rezola Arana “Tximela” (2. bertso-sorta):** Tolosan jaio zen 1914an, eta urteetan *Tornillería Goñin*, *Tornillería Zuaznabarren* eta *Talleres Adunan* aritu zen lanean. Langile honek hogeita bi urte bete zituela lehertu zen Gerra Zibila, eta Eusko Gudarosteko kapitain egin zuten berehala. Gipuzkoa galduta, mendietan, Gernikan eta Bilbon izan zen borrokan, eta 1937an italiarrek preso hartu zuten eta 1940an atara zen kalera.

**“Errexil” (3. bertso-sorta):** Errezil herriko Loidi-Saletxe baserrian jaio zen 1918. urteko urriaren lauan. Bertsolari sendian jaiotakoa eta bertso



giroan hazia; hemezortzi urte zituela harrapatu zuen gerrateak, baina 1937an Urruñara jo zuen ihesi eta han izan zen luzaroan.

**Iñaki Alkain (4, 5, 6, 7 eta 8. bertso-sortak):** aita bertsolaria zuen urnietar honek, baina semeak arrakasta handiagoa lortu zuen lanbide horretan, lehenengoak 1935eko Bertso Txapelketan parte hartu izanagatik ere. Iñaki Alkain Itxarkundia Batailoian ibili zen gudari, eta Bilbon atxilotu ondoren “Batallón de Trabajadores” batera eraman zuten. Aurkezten ditugun bertso-sorten artean, ezezaguna den amezketar artzain bat agertzen da berarekin bertsoan.

**Iñaki Eizmendi “Basarri” (9.etik 20.en bertso-sortara, azken hau barne):** 1913an jaio zen Errezilen, baina hazi eta bizi Zarautzen egin zen, 1999an hil zen arte. Bere lehenengo bertso eta idazlanak 1931n azaldu ziren aurreneko aldiz egunkari eta aldizkarietan *Nere bordatxotik* izenpean. Gerra lehertutakoan Loiolan, abertzalea izaki, batailoia osatu ondoren, altua izateagatik ertzain hartu zuten. Frontean ibili zen, baina gehienez Bilbon egon zen beste lan batzuetan, Santandertik Frantziara alde egin zuen arte, Parisera hain zuzen ere hasieran.

**Estepan Urkiaga Basaratz “Lauaxeta” (21. bertso<kopla>-sorta):** 1905ean jaio zen Lauaxeta Laukizen eta batez ere bere olerkigintzagatik da ezagun. Haur zela Mungiara joan zen bizitzera familiarekin, eta teologia ikasketak egin zituen. Errepublikan hizlari aritu zen EAJren ageriko ekitaldietan, eta 1936an gerra hasita, gudari talde baten komandante ibili zen. Atzerritar kazetari batzuei Gernika erakusten ari zela atxilotu zuten eta 1937an fusilatu Gasteizko hilerriko horman.

**Joxe Mari Lopetegi (22, 23 eta 24. bertso-sortak):** Irunen jaio zen 1875ean, eta nahiz eta ama baserrikoa izan, bera kalean hazi zen. Liberalen tradizio progresista espainiarrean hezi zuten, eta ikasgaiak ez ezik, liberalismo politikoaren oinarri eta ezaugarriak ere ikasi zituen eskolan. Igeltsero eta, ondoren, kontratista eta pinuak botatzen jardun

zuen, Irunen zerrategia eta eraikuntza-enpresa bat ipini zituen arte. Errepublikarren mitinetako bertsolari ofiziala izan zen 1931 eta 1933 urte bitartean Gipuzkoan eta Nafarroa iparraldean, baita 1936ko hauteskundeetan ere, Errepublika federalaren aldeko hautua eginez beti ere. Sarri jelkideen aurka aurkeztu bazen ere, EAJk estatutua ezkerrekin hitzartzea erabaki zuenean, besteak beste “Euzkadi” kontzeptua erabiltzen hasi zen bertsoetan. Gerra hasitakoan Kataluniara erbesteratu zen lehenik, eta gero beste herrialde batzuetara.

**Sebastian Salaberria (25 eta 26. bertso-sortak):** Oiartzunen jaio zen 1915ean, eta bertso jarrietan aritu zen batik bat. Gurasoak txikitan galdurik, gazte denbora morroi pasa zuen eta gero soldaduska egitera bidali zuten 1936an Iruñera, gerra hasitakoan. Gerran, nazionalen aldean ibili zen bere hiru anaia aurkako aldean zeudela jakin gabe. Han zauritu zuten eta hanka motz gelditu. 1937an Donostiako udaletxean jarri zuten lanean, lorategiak zaintzen lehenengo, gero biltegi batzuetan eta azkenik ur-deposituan zaintzaile.

**Kepa Enbeita “Urretxindorra” (27. bertso-sorta):** bertsolaria izateaz gain, Kepa Enbeita idazlea zela ezaguna da. 1878an jaio zen Muxikan eta 1942an hil Areatzan. Bizkaiak eman duen bertsolari hoberenetakotzat hartuta dago, bai plazan bai bertso jarrietan ere. Abertzalea zen Kepa Enbeita, eta horixe azaltzen saiatu zen bertsoetan. Aberria, euskara eta kristautasuna ditu gai nagusi bere lanetan, zeinak *Euskadi*, *Ekin* eta *Argian* argitaratu baitzituen. Bertsolari oinordekotza handia utzi zuen, bere seme Balendinen eskutik batez ere.

**Patxi Lazkano (28.etik 33. bertso-sortara, azken hori barne):** 1937ko kintakoa izanik, 1916an jaio baitzen, Burgosera bidali zuten Alzako bertsolari hau, han soldaduska egin zezan nazionalen aldean. Gero lehen lerroan ibili zen gerra amaitu arte, eta tarteka etxeakoentzako eskutizetan bertsoak bidaltzen zituen.

**Mixel Dargaitz “Otsondo” (34. bertso-sorta):** Saratarra izan arren Otsondo Elizondon bizi zen gerra piztu zenean. Kontrabandista ohia, artzaina eta bertsolaria; 1936ko Bertso Txapelketan parte hartu zuen.

**Felix Iriarte (35. bertso-sorta):** 1912an jaio zen Irurritako Iriarte eta bertsoan ezaguna egin zen 1936ko Bertsolari Txapelketan parte hartu zuelako Elizondon kantatuz. Gerra hasitakoan Nafarroa Beherera pasa zen, eta han bizi izan zen 1987an hil zen arte.

**Beñat Larralde (36. bertso-sorta):** Luhusoar bertsolari hau iparraldera ihes egindako bertsolariekin aritu izan zen bertsoan gehienbat. Ez dakigu asko berari buruz.

**Jose Kruz Urrutia (37. bertso-sorta):** Hondarribian jaio zen Urrutia 1885ean, baina Errenterian bizi izan zen luzaroan, 1962an han bertan hil zen arte. Nekazaria izan zen ogibidez eta bertsolari afizioz.

**Manuel Olaizola Urbietia “Uztapide” (38. bertso-sorta):** Endoian, Zestoa, jaio zen 1909an eta Uztapide deitu izan zaio gehienbat, Uztapide baserrikoa zelako jaiotzez. Uztapideren bertsoaldia 1935ean hasi zen gutxi gorabehera, orduan egin baitzuen bere lehenengo plaza ofiziala, Zubeltzu, Kortatxo eta Zepairekin, baina gerra ondora itxaron behar izango da berriz entzuteko bertsoan. Orduan Basarriekin bertso bikote ezaguna osatu zuen. 1983an hil zen Oiartzunen.

**Juan Jose Lujanbio “Saiburu” (39. bertso-sorta):** 1874an jaio zen eta Lujanbiotarren bertso tradizioari jarraitu zion Txirritak bezala; hau gerra piztu baino hilabete batzuk lehenago hil zen. Saiburu, bestalde, lege zaharraren maitale agertuko zaigu.

**Joanes Harriet “Permundo”:** Nafarroa Behereko Alduben bizi zen gerra piztu zenean, eta Juan Kruz Zapiraini buruz bezala, ez dakigu

gauza askorik berari buruz. Halaber, azken bertso-sortako egilea nor den ez dakigu *Egunak* IÑ-OL Eusko Gudarostearen izenpean argitaratu baitzuen.

## **Bertsoak aztertuta ateratako ondorioak**

Ehun eta berrogeita hamahiru bertsoak aztertuta ondorio bat baino gehiago atera daiteke. Lehenik eta behin, zenbait bertsolari jaramon eginez, baita Bertsolari Egunean jarritako gaiei ere, esan dezakegu aurreikus zitekeela gerra. Halaber, bertsolariak bi aldeetan egon baziren ere, askotan anaia (ez da arrebarik aipatzen) sentitzen ziren; hots, ez bertsolarien artean, baizik eta euskaldunen artean.

Hala ere, oso nabaria da aurkakotasuna bertso anitzetan, baina ez soilik etsaien artean, alde berekoen artean ere bai. Horrez gainera, ildo berean, nabaria da lehen lerrokoen mesfidantza beren lekuan ez dauden agintariekiko.

Era berean, gerran aritu nahiz ez aritu, gehienek beren burua errugabetzat zuten; hau da, batez ere euskaldunei buruz ari zirenean, ez zuten errurik ikusten ez aldekoetan, ez beste aldekoetan. Eta horrela, maiz ados izaten ziren bertsolariak gerra piztu zuten arrazoiak azaltzean: gerra euskaldunen kontrakoa zela uste zuten batzuek, beste batzuek arrazoi ekonomikoengatik sortu zela, eta nazioarteko arrazoiak ere aipatzen ziren. Oso ohikoa zen lehenengo biak batik bat aintzat hartzea, arrazoi bakarra defenditu beharrean.

Bestalde, abertzale gehienek min berezia azaltzen dute nazionalak daramatelako kristautasunaren bandera, beraiena soilik bailitzan. Eta bertso bakoitzeko bertso, bizitako gertaerak, gerrak sorrarazitako pena eta sufrimenduak eta bizitako giroa agerikoa da. Gainera, gerra gaitzesten da eta bakea eskatzen da, nahiz eta gerrarako deiak eta animoak, eta aurkariekiko mehatxu eta abisuak ugariak diren.

## Ondorioen argudiaketa

### Iragarritako anaien arteko gerra?

1936ko Bertsolari Egunean bertsoa kantatzeko guda gaitzat hartzeak ez du esan nahi halabeharrez gutxira gerra iritsiko zenik ez eta gerra iritsiko zela uste zutenik ere. Baina, aurreikuspenaren teoriak garrantzia hartzen du gerra gaitzat jartzeari bertsolari batzuen bertsoak eransten dizkiogunean. Izan ere, behin gerra hasita Sebastian Salaberriak zera esan zigun bi puntutan: “Amaika bider esan izan det mutil koskorra nintzala: / ogei bat urte nitunerako gerra urbilduko zala.”<sup>2</sup>

Dirudienez, aspalditik igartzen zuen bertsolariak. Bertso-sorta bereko hirugarren bertsoan, berriz azaldu zigun ideia bera: “Neronek ere igartzen nion iritxi zala denbora”.

Are garrantzitsuagoa da, ordea, gerra gaitzat hartuta, 1936ko urtarrilean Juan Jose Lujanbiok kantaturiko bertsoa. Pentsa daiteke, Salaberriaren kasuan, gertatu ondoan aurretik jakinaren gainean zegoela esateak meritu handiegirik ez duela, baina gerra gertatu aurretik Saiburuk iragarpen argia emango zigun: “(..)Egun batean esnatu giñan gorrotatuz ezin geio, / anaiak berdiñ ikusten dira alkarreraren kontrario / eta horrela jarriak ditu gerra degula merio.”<sup>3</sup>

Deigarria da gerra sortu aurretik bertso hori kantatzea, Lujanbiok ez baizuen gerra igartzen, egon bazegoela baizioen. “Gerra” hitza

---

<sup>2</sup>SALABERRIA, Sebastian: *Nere soroko emaitzak*. Auspoa, Tolosa, 1984, (9. orrialdea, “Españia’ko gerra tristeari”). Gerra piztu zenean Salaberriak hogeita bat urte zituen eta soldadu joan behar izan zen. Bi tiro oin bakoitzean harturik eta ezkerrekoa moztuta, Iruñeko ospitale militarrean zegoela idatzi zituen bertso hauek, denbora pasa.

<sup>3</sup>ZUBIMENDI, Joseba: “Juan Jose Lujanbio bertso egoitza zaharrean”. *Euzko Deya*, 1939-V-22.

“borroka”ren sinonimo eran bota zezakeen, eta beraz, bere garaiko gertaeraren bati egin ziezaiokeen erreferentzia. Haatik, bertso hasieran “Gerra kontuan ni aritzea” ere badio, eta hilabete batzuk geroago kantatuko ziren bertsoen oso antz handia du berak botatakoak; “egun batean” dioelako bat-bateko aldaketa garai bati erreferentzia eginez, eta “anaiak(...)alkarren kontrario” formula oso errepikatua izango baita uztailaren hemezortzitik aurrera.

Honek pentsarazten digu gizarte tentsioak nozitzen zirela eta batzuk, behinik behin, ez zituela inondik inora harritu militarren huts egindako estatu kolpeak. Hala ere, gerra zetorreneko pentsaera ez zen guztiena, Felix Iriartek 1936 urtearen hasieran gai berari kantatu behar izan zionean zera kantatu baitzuen: “bainan euskaldunen artean segur dugu pakea.”<sup>4</sup>

Dena den, ez pentsaera batak ez besteak ez du indar handiegirik, bertso gutxi direlako agian. Nire ustez, aldiz, Saibururen bertsoak aipamen berezia behar du bere iragartzeko gaitasunagatik, eta esan bezala, bertsolariak etorriko zena hain ondo ikusteko inguruan zer edo zer nabaritu behar zelako.

Bertso mordoia dago, bestenaz, euskaldunen arteko anaitasuna adierazten dutenak, nahiz eta alde ezberdinetan egon, eta dagoeneko agertu da adibideren bat. “Tximelak”, Iñaki Alkain eta Amezketako artzainak, Joxe Mari Lopetegik eta Sebastian Salaberriak behin baino gehiagotan aipatzen dute “anaia” hitza euskaldunen nolabaiteko berezko batasuna adierazteko. Aipaturiko bertsolariak ideologia ezberdinekoak dira <sup>5</sup> eta horrek anaitasunaz hitz egiteko zegoen ohituraren berri dakarkigu. Esan bezala, ohituraz esan zitekeen soilik, baina ematen duenez, benetan zegoen anaitasunezko kontzientzia euskaldunen artean.

---

<sup>4</sup> ZUBIMENDI, Joseba: “Bertsolariak Elizondon”. *Euzko Deya*, 1939-IV-2.

<sup>5</sup> *Ik.* “Bertsoen eta egileen izaera” atala.

Alabaina, Lopetegiren ugaritasunean, “anaia” hitzaren kontzepzio ezberdinak uler daitezke. *Gora Euzkadi askatuta!*<sup>6</sup> bertso-sortako seigarren bertsoan “gure lurrean pake onean biziko gera anayak” dio, eta aurretik esandako zentzua eman dakioke “anayak” hitzari, baina bada bestelakorik ere. Bere aldekoen buruz aritzeko Lopetegik “anaia” hitza darabil *Gezurtientzat*<sup>7</sup> bertso-sortan: “Bizkai aldetik gure anaiak mugitzen asi zirala”. Kasu honetan “anaia” hitzarekin ez dira euskaldun guztiak aipatu nahi, baizik eta nazionalen aurka ari diren bizkaitarrak.

Dena den, esandako moduan, asko erabiltzen zen “anaia” hitza, eta praktikan ikusi ahal da gerran aurkari gertatutakoen artean irudikatzen duen anaitasuna. Iñaki Alkain eta Amezketako artzainaren arteko hiru bertso saioetan<sup>8</sup> antzeman daiteke nabarmenen; biak kontrako aldeetan banaturik izan arren, anaitasuna eta laguntasuna adierazten diote elkarri behin eta berriz, ia modu errepikakorrean. Anaitasun deklarazio hori areagotuz doa bertsoetik bertsoa, eta, beraz, parte hartzen duten saiotik saiora.

Bi bertsolari horien elkarrizketarekin beste gai baterako bidea har dezakegu. Izan ere, elkarri erakusten dioten laguntasunak, “nigandik lasai gorde daukazun bizia” Alkainek edo “lengo egunez zu falteakin egondua naiz penetan / hamaika poza ematekoa zerade mundu honetan” artzainak besteak beste, bi aldeetako partaideen arteko etsaitasuna leuntzen du. Soldadu asko derrigortuta joan zen gerrara, baina ez dirudi kasu horietakoa zenik hau. Alkain badakigu dagoeneko nor den, gudaria zela esana dugu, eta Alkain gazteak “pakea nai badezu gugana etorri” esaten dionean “Alkain, etzazu esan

<sup>6</sup> LOPETEGI, Joxe Mari: “Gora Euzkadi askatuta!”. *Euzkadi en Catalunya*, 1937-VIII-14.

<sup>7</sup> LOPETEGI, Joxe Mari: “Gezurtientzat”. *Euzkadi en Catalunya*, 1936-XII.

<sup>8</sup> ALKAIN, Iñaki eta ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak I*. Auspoa, Tolosa, 1981, (99. orrialdetik 105.era). Basalgo mendian, Bergaratik Soralezera goazela, hamabost egun eman zituen Iñaki Alkainek. Bertan zegoela, etsaien aldean bertsolari bat zegoen eta elkarrekin bertsoan egin zuten hiru aldiz. Alkainekin batera saioak egiten zituzten lekura joandako lagun batek idatzi zituen bertsoak entzuten ari zela.

orrelakorikan/(...)etzegoan ezertxo esan beharrikan” artzainak ihardestearekin adierazi nahi du bi aldeetan egotea onartzen duela, Alkain isilarazten baitu gai horrekin ez jarraitzeko eta bien artean bakea izateko. Beraz, aurka zeuden bi lagun ziren, eta ematen du hori oso normala zela.

Normala izan arren, egoeraren ezin ulertua sarritan antzematen da halaber. Aipaturiko azken protagonisten bigarren saioan artzainak dio: “bañan bide banatatik biok guazela; / au ezin entenditu dizut nik iñola”; eta Alkainek erantzun: “Batetik egia da: gabiltz lotsagarri, / tiroak tirarikan anaiak alkarri”. Hirugarren saioan gehiagotan adierazten da ezin ulertua.

Sebastian Salaberriak ideia bera adierazten du *España'ko gerra tristeari*<sup>9</sup> bertso sortako hamaikagarren bertsoan: “Kain gaiztoak Abel il zuan, begira zaiogun orri; / baña oraingo gerra triste au ezberdiña izugarri: / anaiak bata bestea iltzen gorroto gabe alkarri.”. Izan ere, Salaberriak bere anaien kontra borrokatu zuen batere jakin gabe *Neronek tirako nizkin*<sup>10</sup> bertso-sortan ikusten den moduan: “An bi anayak alkarren kontra giñala guk ez genekin, / inkurriorik gabe alkarri tiroka fusillarekin; / urrena berriz ospitalian bildu giñan alkarrekin, / negar egiñaz berak esana ordun pena ederrarekin: / <Ire oiñ oyek jotako balak NERONEK TIRAKO NIZKIN!>” (hizki larriz Sebastianek berak idatzi zituen azken hitzok).

## Dena anaitasun?

Ez zen dena anaitasuna, ordea. Gerran zeuden eta beraz etsai bat zuten denek. Hala ere, “etsaia” hitzaren erabilera gehiago nabaritzen zaie errepublikaren defentsan aritutako bertsolariei, aurkako bandoan

<sup>9</sup>*Ik.* Bigarren ohartxo.

<sup>10</sup> SALABERRIA, Sebastian: *Neronek tirako nizkin*. Auspoa, Tolosa, 1964, (150-151 orrialdeak).



egokituriko bertsolariei baino. Azken horiek anaien arteko gerra tristeari jaramon gehiago egiten diote (Patxi Lazkano, Salaberria, Amezketako artzaina). Artzain ezezagunak soilik agertzen du aurkariarekiko mesfidantza talde honetan: “bainan ez nazu ezer piatzen C.N.T.ko jendeakin” eta “ez al dute hoiiek beti izango burua lengo lepotik?”.

Oso zabaldurik zegoen anarkistekiko mesfidantza, nahiz euskal gizartean anarkismoa beste batzuetan bezainbat erroturik ez egon. Erljioaren kontra CNTk zuen jarrerak kristau asko beren aurrean ipini zuen, eta euskal gizartea garaian hain katolikoa izanik ulertzekoa da amezketarraren esana.

Esan bezala, berriz, alde errepublikarrek argiago eta gehiago azaltzen zieten etsaitasuna aurkakoei, bertsolarien kasuan. Horrek adieraz liezaguke euskal errepublikazaleak konbentzituago zeudela beren jarreretan, anaitasuna sentitzen zuten euskal erreketek baino. Balorazio bat baino ez da.

Alkainek berak 1937an *Karlistei*<sup>11</sup> izenburupean idatziriko bertsoetan “Karlista euskalduna, lotsatzen ez al zera?” esaten du, baina gogorrago aritzen direnak badaude. Basarrik behin eta berriro hitz egiten du etsaien krudelkeriaz eta gogorkeriaz, aurre eginez: “fatxista txarrak galdu zaitue euren gorrotu ankerrez,”<sup>12</sup>, “Bekaizkeri ta gorrotu itxuak zuri onuntz bultza dizu”<sup>13</sup>, “Etsai zakarrok entzun zazute (...) / gorrotua ta edena baizik ez da zuen biotzetan;”<sup>14</sup>, “Ongi dakigu milla pikardi egingo dituzutela, / goiko txori zar maltzur oiekin saiatuko zeratela.”, “Gorrotu beltzez josirik dator etsai txar amorratua, / bera da gure erri apañak griña gaiztoz apurtua. / Ainbat aurtxo ta giza-

<sup>11</sup> ALKAIN, Iñaki eta ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak I*. Auspoa, Tolosa, 1981. Hasiera batean sei bertso jarri omen zizkien Mutrikun Bilbo erori aurretik Alkainek karlistei, baina bi baino ez ditu gogoratzen.

<sup>12</sup> EIZMENDI, Iñaki “Basarri”: “Agur, amuzkibar, agur!”. *Argia*, 1936-IX-29.

<sup>13</sup> EIZMENDI, Iñaki “Basarri”: “Ai Mola, Mola!”. *Eguna*, 1937-I-2.

<sup>14</sup> EIZMENDI, Iñaki “Basarri”: “Biotzgeak zerate!”. *Eguna*, 1937-IV-15.

emakume betiko lurperatua”<sup>15</sup> ... 1938an *Itzaldi bat*<sup>16</sup> izenburuean argitaraturiko bi bertsoak ere ildo berean koka ditzakegu.

Halabaina, Basarrik etsaiei gutxiespena ere adierazten die, bere propaganda moduko bertsoetan. Ai *Mola, Mola!* bertso-paperek zera diote gutxiesteko: “Gure mutillak menperatuta aurrera ezin abitu, naiz ortarako moro beltz eta aleman txuriak bitu;” edo “oraintxen ere txakur txar onek” (Molari buruz ari da). Gainera, *Paxistak ikaraz*<sup>17</sup> bertso-sortak zera dio: “Lengo gabez etzan giro Lemoaitz gañean, / pusil eta bonba zarrak gogotsu lanean; / galtzetan estu ziran unetxo batean, / afaitan jandakoak iya erdi botean, / aizeakin bildurtuta gu giñan ustean.”. Eta *Lizunkeria nunai*<sup>18</sup> sortan ere ospea kendu nahi die etsaiei: “Donosti’n da Gasteiz’en gaur zer gertatzen dan, / bear dan bezela iñork ezin lezake esan, / aragikeri lizuna zinetan da plazan / Afrika’ko basatiak darabilten gisan, / (...)”

Lauaxetak honela adierazten du etsaitasuna, “Seme bat zeukan baina etsaiak kendu eutsoen bihotza”<sup>19</sup>; Lopetegiren bertso gehienetan azaltzen da; aurreko biek baino suabeago adierazten badu ere, Kepa Enbeitak “Gaiztokian ezta gaur txerren bat bera be, / gizadi-ondatzalok andik urten dabe”<sup>20</sup> eta “Eta gixadi-buru egiñik txerrenak / sortu dauzan matasa, gorroto-edenak!”, Juan Kruz Zapirainek, “Gu galdu naiez dabiltz etsaiak utsegin gabe egunik...”<sup>21</sup>, edota *Egunako* bertsoek<sup>22</sup>.

<sup>15</sup> EIZMENDI, Iñaki “Basarri”: “Eldu da gure ordua!”. *Eguna*, 1937-IV-30.

<sup>16</sup> EIZMENDI, Iñaki “Basarri”: “Itzaldi bat”. *Euzkadi*, Paris, 1938.

<sup>17</sup> EIZMENDI, Iñaki “Basarri”: “Eguna bertsoan II”. *Eguna*, 1937-VI-10.

<sup>18</sup> EIZMENDI, Iñaki “Basarri”: “Eguna bertsoan II”. *Eguna*, 1937-VI-12.

<sup>19</sup> DORRONSORO, Joanito: *Bertsotan II. 1936-1980*. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, Zarautz, u.g., (355. orrialdea). Hiltzera kondenaturik zegoela idatziriko bertso gogoangarriak dira Lauaxetarenak.

<sup>20</sup> ONAINDIA: *Enbeitat'ar Kepa. Gure Urretxindorra*. Ekin Euskal Argitaldaria, Buenos Aires, 1971, (209. orrialdea).

<sup>21</sup> ZUBIMENDI, Joseba: “Libertatia zoinen eder den”. *Euzko Deya*, 1939-VIII-13.

<sup>22</sup> (EZEZAGUNA): “Txistua tamal dago”. *Eguna*, 1937-IV-18.

Aipamen berezia merezi du Lopetegik, Basarriekin batera bertso-propaganda moduko gehien sortu zituenak. Nahiz eta haren bertsoek batzuetan “Basarri”ren moldeak hartu, “alkarregana bildu dirade bekaizkor ta zitaltsua”<sup>23</sup>, “karrikan dauden basurde zarr oik biral ditzagun mendira” edo “Bear bezela garbitutzian aurka ditugun etsayak”<sup>24</sup>, badute berezirik ere. *Gezurtientzat*<sup>25</sup> eta *Ekaitza*<sup>26</sup> bertso jarriek Otañoren *Mutil koxkor bat itsuaurreko* bertso paperen antza dute egituran, bertso bukaeretako errepikapenak direla medio, eta batzuetan etsaiaren zitalkeriari kasu eginez, besteetan etsaiari barre eginez, “Oik uste zuten zala Madriden sartzia / kanpantorrera joan ta ezkillak jotzia”. Lopetegiren ideia errepublikazaleek, gainera, berrikuntzak sartu zituzten garaiko bertsolari tipoa.

Aurkakotasuna, aitzitik, era apalagoan adierazi arren, bando berekoen artean nabaritzen da. Lehen aipatu dugu artzainak CNTrekiko zeukan mesfidantza; Alkainek, bere aldekoak izan arren, ez ditu gustuko: “Hortan artzaia emango dizut arrazoi oso poliki / C.N.T.koak zer nola diran Alkain gazteak badaki / zuzenbiderik hoi en artean nola ezin dedan arki / harro xamarrak ziraden baina umildu dira ederki.” edo artzainari izena eskatu ostean “hortik aurrera C.N.T.koaz nai dezuna egin zazu”. Kristautasunaren defentsagatik uler daiteke jarrera hori; izan ere, bando berdinean zeuden, baina ideologiaz oso ezberdinak ziren jeltzaleak eta anarkistak.

Patxi Lazkanok *Kantu lanian asi biar det*<sup>27</sup> bertso-sortan ere ez ditu bere aldekoak begi onez ikusten: “besteren mende gabiltza eta nora guazen jakiñ ez” edo “zeruan nola sartu liteke gerra au sortu zubena?”.

<sup>23</sup> LOPETEGI, Joxe Mari: “Ekaitza”. *Euzkadi en Catalunya*, 1936-XII.

<sup>24</sup> *Ik.* seigarren ohar txoa.

<sup>25</sup> *Ik.* zazpigarren ohar txoa.

<sup>26</sup> *Ik.* Hogeita hirugarren ohar txoa.

<sup>27</sup> LAZKANOK, Patxi eta ZAVALA, Antonio: *Tiro tartean bertsoan*. Auspoa, Tolosa, 1983, (85-87 orrialdeak).

Lazkanoren esperientzia gerraren baitan lehen lerroan zeudenen eta agintarien arteko desadostasunean koka genezake halaber, hor ere bakarrik egongo ez litzatekeelarik. Berak argi dio: “bestiak ondo bizitziagatik jokatzen geren biziyak”<sup>28</sup>. Alkainek Sabin etxean hau kantatu zion goi kargu bati: “silloi ortatik nai al zenduke guk guda irabaztea?”<sup>29</sup>. Sebastian Salaberriak berriz: “agintariak gogor zioten: <Fusillak artuta goazen!> / Gaur nik bi oñak osorik neuzkan ori gertatu ez bazen.”<sup>30</sup>

Anaitasunaz gain, etsaitasuna ere bazegoen beraz; eta oso nabaria, gainera. Baina gehienbat bertsolari ideologizatuenetan nabaritzen da hori, eta lehen lerroan daudenek beren aldean ikusten dituzte, besteak beste, aldatu beharreko gauzak. Gerrara joandako asko ez ziren sutzuki joan, zerbaiten kontra edo zerbaiten alde gogor borrokatzera.

## Errugabetasun sentimendua eta gerrarako zergatiak

Alkain eta Amezketako artzaina bat zetozen bertsoak elkarri botatzen ari zirela. Lehenengoak “ezer kulparik izan gabetan tiroka bata bestea” esaten du, eta bigarrenak arrazoia eman “ Artzai maitea, ori egia da, (...) / biok horrela jarri gaituzte (...) / baina biotza biok zabala (...)”. Errugabetasuna zabalduxe zegoen gerran zebiltzanen artean, dirudienez. Izan ere, Basarrik berak ere aitortzen du: “Gu euskotarrok len eta orain gerraren etsaiak gera; / lana egiñaz paketsu geunden aurreko zarren antzera. / Menditan bera gorroto biziz bazetozen gu iltzera, / alegiña nork ez du egiten bere burua zaitzera? / Gu ere orrek beartu giñun eskutan armak artzera”<sup>31</sup> edo *Gudari asko datoz*<sup>32</sup> izenpean “Indarrez artu dituzte askotxok pusillak, / ortaraxe bearturik

<sup>28</sup> *Ik.* hogeita zazpigarren ohartxo.

<sup>29</sup> ALKAIN, Iñaki eta ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak II*. Auspoa, Tolosa, 1981.

<sup>30</sup> *Ik.* bigarren ohartxo.

<sup>31</sup> ZUBIMENDI, Joseba: “Eizmenditar Iñaki, <Basarri>”. *Euzko Deya*, 1939-II-26.

<sup>32</sup> *Ik.* hemezortzigarren ohartxo.

paxisten makillak;”. Faxisten makilek beharturik ari zirela, baina faxistekin zeudenek ere ez zutela gerrarik nahi adierazten dute, artzainari aditu diogunez. Lopetegik ildo beretik dio: “Guda txar onek nasiyak gabiltz ez genduen au merezi”<sup>33</sup> eta Basarriekin bat dator: “Atzera egin da galdua zegon gure erri doatsua / orregatikan burua gora eman genduen pausua”<sup>34</sup>. Salaberrik larriturik esaten zuen “soldadu joan bearko da”<sup>35</sup> eta Lazkanok “pakeosua beti izan naiz, umilla ta serbitzala, / okasiyuan jarri gaituzte, Jaunak bedeinka ditzala!” eta “Naziyu ontan lautatik iru bizi giñanak pakian, / jarri gaituzte okasiyuan askoren errematian;”<sup>36</sup>.

Ikusten denez, bi aldeetako inork ez zuen gerra egiterik nahi, diferentzia bat dagoen arren. Lazkanoren eta Salaberriren kasuan, gerran jarri zituztela esaten da, eta alde errepublikarrean aritutakoek aurka zetozelako esaten da. Beraz, azkenek defenditzearren egin zuten gerra, eta lehenengoek jarri zituztelako —soldaduskara deituta—. Gauzak horrela, sinets daiteke askok eta askok ez zuela benetan gerrarik nahi.

Nahi gabe gerran izateak, jazoera honen zergatiak miatzen jartzen ditu bertsolariak, eta erantzun ezberdinak aurkitzen dituzte. Batzuek, dagoeneko ezaguna zaigun artzainak bezala “lau-bostengatik kendu nairikan berez degun zoriona”<sup>37</sup>, arrazoi ekonomikoak ikusten dituzte liskarraren motibo sakonetan. Lopetegik ezker kutsuko ideiak eransten ditu, “aberats aundinaiatik dator emengo naste osua / oinpean beti eduki naiak langille edo beartsua”<sup>38</sup> dio, aberats eta pobreen arteko borroka azaleratuz. Konforme dago Lazkano ere “Askok esaten dute: <Au negoziyua! / Nik badet Jainkuakin partiziyua!>”<sup>39</sup>, eta, dirudienez,

<sup>33</sup> *Ik.* seigarren ohartxo.

<sup>34</sup> *Ik.* hogeita hirugarren ohartxo.

<sup>35</sup> *Ik.* bigarren ohartxo.

<sup>36</sup> *Ik.* hogeita zazpigarren ohartxo.

<sup>37</sup> *Ik.* zortzigarren ohartxo.

<sup>38</sup> *Ik.* hogeita hirugarren ohartxo.

<sup>39</sup> LAZKANO, Patxi eta ZAVALA, Antonio: *Tiro tartean bertsoan*. Auspoa, Tolosa, 1983, (87-89 orrialdeak).

Uztapidek 1936ko urtarrilean kantatu zuenean, akaso, tankerako zer edo zer esan nahi zuen: “bestela zertan dira emengo aberatsen izateak,”<sup>40</sup>.

Baina interpretazio orokortuagoa da, batez ere abertzaleen artean, euskaldunen aurkako gerra dela —euskalduna izatearen garrantzia azpimarratzen da, adibidez, Alkain eta artzainaren arteko bigarren saioan, Alkainek artzainari barkamen gisa “zauden soldaduzk’ortan, bear den bezela; / bañan jakin zazu zu euskaldun zerala”. Basarriren arabera, “euskaldun danak zapaltzea” zen Molaren “ametsa”. Are gehiago, ideia bera berriz erabiliko du *Biotzgeak zerate!*<sup>41</sup> bertsopaperetan “Zeuen ustetan ori guzia euskotarra bildurtzeko,” eta *Eldu da gure ordua!*<sup>42</sup>, “Gure erri zar au ondatutzeko oiek dakarten gogua! Gu euskotarrok irentsitzea amets eten gabekua”. Lopetegik, nahiz eta bere errepublikazaletasuna adierazi, “emen bear diran agintzailleak Euzkadik ditu berezi”, abertzaleen erara “euskal izkuntzik nai ez dutenak egin digute sarrera /oiturak galerazi naian sarturik gure lurrera” eta “gure oiturik nai ez dutenak emen zertarako dira”<sup>43</sup> diosku; bere kasuan esan daiteke arrazoi ezberdinak aurkitzen saiatzen dela, arlo ekonomikoari ere begiratzen baitio, ikusi dugunez.

Nahiz eta bere aldekoak izan berak salatzen duenaren egile, Lazkanok ere “euskaldunen kontrako traiziyua”<sup>44</sup>, “Euskaldunaren kontra badaukate grina” eta “(...) Euskal Erriyak berarenganatutzera;” diosku, ziurrenik soldadu zegoela euskaraz idatzi eta batzuetan hitz egitea galarazi baitzioten. Bertsolari honek ere, Lopetegik bezala, arrazoi aniztasuna zegoela helarazten digu; arrazoi internazionalak ere aipagai ditu *Bertso berriyak ateratzeko*<sup>45</sup> sortan.

<sup>40</sup> ZUBIMENDI, Joseba: “Eusko Nekazari Bazkuna eta <Uztapide> bertsularia”. *Euzko Deya*, 1939-V-14.

<sup>41</sup> *Ik.* hamalagarren oharra.

<sup>42</sup> *Ik.* hamabosgarren oharra.

<sup>43</sup> *Ik.* seigarren oharra.

<sup>44</sup> *Ik.* hogeita hemeretzigarren oharra.

<sup>45</sup> LAZKANO, Patxi eta ZAVALA, Antonio: *Tiro tartean bertsoan*. Auspoa, Tolosa, 1983, (123-124. orrialdeak).

Beraz, arrazoi ezberdinak bilatu ziren, eta euskaldunen kontrako gerra zela ia argudio bakartzat erabili zuten abertzaleek, baina arazoa ez zen hain sinplea izan.

### Kristau batzuen mina

“... oraingo kristau berri auentzat gu erejeak bai gera” esaten dio Atañoek bere aitari kartzelatik bidalitako gutunean. Katolizismoaren defentsan eginiko gerra gisa aurkeztu zuten Gerra Zibila nazionalak, gurutzada berri bat zela esaten baitzen, eta halabeharrez aurkari edo etsaiak kristautasunaren etsai bihurtzen ziren. Horrek min eman zien errepublikaren alde ari ziren katolikoei, eta aztertzen ari garen honetan, hain zuzen, batez ere jelkideek ordezkaturiko dute gizarteko sektore horren oinazea eta ezina.

Alkainek ere “reljioa aotan artu eta mutillak iltzera.” dio karlistei eskainiriko bertsoetariko bigarrenean; Iñaki Eizmendik beren aldeko apaizak eta etsaien aldekoak konparatzen ditu, aurrenekoen babesean atereaz “Baña ez dabiltz pusillarekin gorrotua jaun dutela, / beste alderdi ortako batzuk ikusten diran bezela.”, “erlijioan alde moro zar ta guzi, / katolikotasunean munduko nagusi, / olako dotriñik guk ez gendun ikasi.” eta “katoliko izen ori bego apartean”<sup>46</sup>. Are gehiago, Lazkanok berak ere, nahiz eta beraiekin borrokan aritu, ez zituen gurutzada egitera zihoazela ziotenak alor horretan ulertu: “Jaunagandikan datorrena ezta olako formalidadia.”<sup>47</sup> eta “Jaungoikuaren legian billa dabiltzala dute esan, / juanagatikan errezo gutxi egiten dute elizan; / bi urti ontan mendiyen gaude, mezetan ez gera izan”<sup>48</sup>.

---

<sup>46</sup>EIZMENDI, Iñaki “Basarri”: “Txalo eusko apaiz agurgarriai!”. *Eguna*, 1937-I-19.

<sup>47</sup>*Ik.* hogeita zazpigarren oharra.

<sup>48</sup> *Ik.* berrogeita bostgarren oharra.

Ikusten den moduan, bat baino gehiago sentitzen zen deseroso aurkariak katolizismoaren ikurra bereganatu zutelako.

## Gerrak sorturiko samina eta bake nahia

Amaitzeko, aipatu beharra dago bertsoetik bertSORA behin eta berriz errepikatzen direla gerrak sorturiko pairamen, oinaze, mesfidantza eta giro penagarriak. Bertsolari askok kontatzen du hau eta hura gertatu zaiola, edo hau eta hura ikusi duela. Etsaien zitalkeria eta gosea errepikatzen dira gehien, gerrak merezi duen gaitzespena uneoro errepikatzeaz gain bake desioekin batera.

Badaude gerrara deitzen ari diren bertsoak “fusilla artuta al dan lenena onera biezue etorri; / defendi zagan gure España ondo egiñaz askori”<sup>49</sup> (Lazkano), baina ez dira hainbeste eta, gainera, gerrarako deia egiten dutenek gerrak sorrarazten dien pena azaltzen dute, aipaturiko erara, “ai zer negarra etorriya da senire-gurasuentzat” dio Lazkanok berak.

Gerrak sortutako pena eta bake desioa adierazten duten bertsoak hainbeste izanik, ez gara bana-banan zenbatzen eta hemen azaltzen hasiko; esandakoa ziurtatu nahi izanez gero eranskinean datoz ehun eta berrogeita hamahiru bertso eta hamasei koplak.

Aurreikus zitekeen azken ondorio hori, ez baita harritzekoa pena adieraztea; baina, hala ere, esan beharra dago giroa hobeto ezagutzeko, eta beti egon behar du agerian.

## Laburpena

---

<sup>49</sup> LAZKANO, Patxi eta ZAVALA, Antonio: *Tiro tartean bertsoan*. Auspoa, Tolosa, 1983, (24-25. orrialdeak).



Gerra hasi aurretik bake gogo zegoen, eta gerra hasitakoan honek sorrarazitako pena oso zabaldua izan zen. Errepublikaren alde ari ziren katolikoek jasan behar izan zuten aipaturiko pena, aurkariak haien erlijioaren ikurra eramateak egindako minarekin. Eta beren aurka zihoazela ikusita, abertzaleen kasuan, gerra euskaldunen kontrakoa zela ulertu zen.

Zergatik sortu zen gerra edo zergatik sortu zuten —batzuen iritziz— azaltzeko ez zegoen argitasun handiegirik gizarteko zati handi baten barnean; ez dirudi zenbaitek oso ondo ulertu zutenik gerra, bertan izan arren. Eta horrek sortu zuen, agian, makina batek sentitzen zuen errugabetasun zentzua.

Etsaiaren aurka joan beharrak baino gehiago kezkatzen zuen soldadua, maiz, alde berean zuen lagunak. Batez ere gerran jo eta su ari zen soldaduak ez zuen oso gogoko bere atzean agintzen ari zena, batzuetan behintzat. Horrek ez du esan nahi aurkako aldearekiko etsaitasunik ez zegoenik, ez eta gutxiagorik ere; baina hori askoz gehiago nabaritzen da errepublikazale euskaldunen artean, nazionalen aldeko euskaldunen artean baino. Azken horietariko asko “gerran jarri” zuten “anaia”ri tiro egiteko eta ez zuen etsaitasun berezirik sentitzen. Lehenengo taldean ere bazeuden zenbait egoera horretan, gutxiago baziren ere.

Izan ere, nahiz eta bitan eginik izan euskaldun zenbaitek anaitasuna adierazten die aurkari diren euskal hiztunei. Garrantzitsuena euskalduna izatea da zenbaitetan.

Eta hori guztia hainbeste hildako sorrarazi zituen gerra batean gertatzeak askorentzako gerrak berak zekarren zentzugabekeria ulertarazten digu. Bestalde, aurreikus zitekeen gerra zela esan behar da.

Agiri bat izan daiteke bertsoa, dokumentu baliagarria bere eragozpen propioekin. Bertsoek ere, kasu honetan, Gerra Zibilari buruzko informazio zuzena eskaintzen digute, eta hona hemen horren adierazlea.

## **Bibliografia**

ALKAIN, Iñaki eta ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak I, II*. Auspoa, Tolosa, 1981.

ENBEITA, Balendin: *Bizitzaren joanean*. Elkar, Donostia, 1986.

LAZKANO, Patxi eta ZAVALA, Antonio: *Tiro tartean bertsoan*. Auspoa, Tolosa, 1983.

SALABERRIA, Sebastian: *Nere soroko emaitzak*. Auspoa, Tolosa, 1984.

ZUBIMENDI, Joseba: *Bertso minez*. Alberdania, Irun, 2002.

PRESTON, Paul: *La Guerra Civil española*. Plaza & Janes Editoriales, Bartzelona, 2000

SALAS LARRAZABAL, Ramón eta Jesús María: *Historia general de la Guerra Civil*. Rialp, Madril, 1986.

TUSELL, J., GARCIA, G. eta QUEIPO DE LLANO: *El catolicismo mundial y la guerra de España*. Biblioteca de Autores Cristianos, Madril, 1993.

## **Eranskinak**

### **X. Zapirain “Ataño”**

#### **.1**

*Espetxetik nere aitari (1936)*

Ez gurutze ta ez apaiz joan zan  
beste askoren antzera  
abertzalea ta bizkaitarra  
kristau zintzoa zan bera  
oraingo kristau berri auentzat  
gu erejeak bai gera  
gure Jainkoak artu dezala  
betiko atsedenera.

Ez dezu aita sinistuko zuk  
baña egi borobilla  
hamaika aiton egon zitzayon  
txutik eziñik otzilla  
inbiri pixar bat biotzean  
begira, triste ixilla

kajan zijoan aren lekuan  
bera ez izana illa.

Bazkal ordua etorri zan ta  
turuta otsa, arrantxo  
eroskor baitzun mende, presuok  
sartu giñan mantxo-mantxo  
eguberriak, otordu on bat  
nai, aspilla nion jaso  
ur epelaren azpian zeuden  
egoskor iru garbantzo.

Arratsaldean berriro ere  
orma gañean pasian  
otordu on bat egin da gero  
aberatsaren klasian  
bazkariaren antzekoa zan  
aparia arratsian  
lenteja gordin batzuk ikusi  
nitun igari pertzian.

Aspertu nintzan ara onera  
joan etorrian ibiltzen  
lo egiteko asmoan, noizbait  
asi ere mantan biltzen  
agure xar bat aldamenean  
oñazetan eta iltzen  
-Que me muera, que me muera-oyu  
ta oyu etzan ixiltzen.

Ori zan aurten nere eguberri  
otza, gosea ta laño  
Jesus aurtxo etorriko zan  
gizonen artera baño  
bere maitasun pozik etzaigu  
sartu gauden lekuraño  
demoniñoen leizera aita  
ez da batere estraño.

### Luis Rezola Arana “Tximela”

.2

*Gorbea norke gureganatu? (1937)*

Aldizka odol txar egiten da  
nere buruan, nai ez ta,  
gaur da betiko kenduko diet  
batzuek daukaten kezka.  
Gorbea nolaz artu genduan

etorri zaizkit galdezka,  
bi talde giñan sartu giñanak  
atzeti eta saieska,  
<Padura-koa> bakarrik zala  
gezur bat besterik ezta!

Gezurtik dira, naiz anai izan  
emen nere erantzuna:  
<Lenago-il>-ko gudarik giñan  
gurutze artu genduna.  
Euskadik jakin dezala ongi  
au da erabakizuna:  
Joxe Goenaga izandu zala  
ikurriña jarri zuna.

### “Errexil”

.3

*Alde batera (1936-1939)*

Alde batera utzi nituen  
Azpeiti eta Errezil  
lenago harro banintzan ere  
orain jarria naiz umil  
handik ihesi etorri eta  
geroztikan hemen nabil  
oraindik hemen bizi naiz eta  
han izan banintz igual hil

### Iñaki Alkain

.4

*Amezketako artzaia, entzun (1936)*

I. Alkain:

Amezketako artzaia entzun  
Jakín beharrean nago  
artzai geienak diran bezela  
zu ez al zera izango  
zure izen ta apeliua  
ikastea nik naiago  
nola dituzun zuk beraz hoiek  
ez al didazu esango?

Amezketako artzaia:

Alkain gaztea nola liteke  
galdera hori neretzako?  
esango nuke baldin bakarrik  
balitzake zuretzako  
ematerikan nere izena  
ez daukat besterentzako  
zuk bezelaxe gogo gutxi nik  
daukat orain hiltzeko

I. Alkain

Aizu artzaia bildurrez beraz  
jarririkan zaude lertzen  
pozez beterik hemen egon naiz  
zure bertsoa aditzen  
gugan okerrik izango danik  
ezer etzait iruditzen  
aitormen jator egin ezker  
hura ez dakigu hiltzen

Amezketako artzaia:

Alkain gaztea ni piatzen naiz  
zure esana hoiekin  
ez litzakela ezer okerrik  
aitormen jatorrarekin  
eta badakit hor zabiltzala  
zure antzeko lagunakin  
bainan ez nazu ezer piatzen  
C.N.T.ko jendeakin

I. Alkain

Hortan artzaia emango dizut  
arrazoi oso poliki  
C.N.T.koak zer nola diran  
Alkain gazteak badaki  
zuzenbiderik hoi artean  
nola ezin dedan arki  
harro xamarrak ziraden baina  
umildu dira ederki

Amezketako artzaia:

Bertso hori nik ongi aditu det  
irtena zure ahotik  
C.N.T.koak zuk ezagunak  
daduzkazula gogotik  
halaz guztiaz ni bildurrik naiz

zuk hori esanagatik  
ez al dute hoiek beti izango  
burua lengo lepotik?

I. Alkain:

Aizu artzaia nere azkeneko  
bertsoa entzun zaidazu  
garbi bazaude C.N.T.koen  
bildur izandu etzazu  
zure izen ta apeliua  
zauden lekutik ekartzu  
hortik aurrera C.N.T.koaz  
nai dezuna egin zazu

Amezketako artzaia:

Alkain gaztea hasarre gabe  
zurekin nai det pakean  
naiz gerran hemen ibili arren  
biok alde banatean  
nere izena zuk jakitea  
etzendukela kaltean  
gaur ez dadukat ematerikan  
agur beste bat artean

## .5

*Amezketako artzaia, entzun. Bigarren saioa  
(1936)*

I. Alkain:

Gabon, artzai mutilla  
eta zure lagun,  
orain ere emen gera  
gu zuen inguruan;  
izena jakitea  
lenguan utzi nun  
zerbait beste gauzetan  
kantatu dezagun.

Amezketako artzaia:

Bejondeizula, bada,  
zu, Alkain gaztea,  
berriro jator-jator  
bazatoz ostea,  
artzai onengandikan  
zerbait ikastea,  
laguntza egitearren

batetik bestea.

I. Alkain:

Gañera aitortzera  
 arrazoi zendula;  
 ikusten det agindua  
 betezen dezula,  
 zauden soldaduzk'ortan,  
 bear dan bezela;  
 bañan jakin zazu zu  
 euskaldun zerala.

Amezketako artzaia:

Ongi badakit, Alkain,  
 euskaldun naizela,  
 amaren sabeletik  
 sortuak gerala,  
 bañan bide banatik  
 biok guazela;  
 au ezin entenditu  
 dizut nik inola.

I. Alkain:

Ezin al diozu orri  
 inolaz igarri?  
 Batetik egia da:  
 gabiltz lotsagarri,  
 tiroak tirarikan  
 anaiak alkarri;  
 pakea nai badezu  
 gugana etorri.

Amezketako artzaia:

Alkain, etzazu esan  
 orrelakorikan,  
 emen euskaldun ez naiz  
 bakar-bakarrikan;  
 ixilik egon zaite  
 zu orregatikan,  
 etzegoan ezertxo  
 esan bearrikan.

I. Alkain:

Artzaia, orain dakit  
 nik guzi-guzia,  
 jostorratza baño're

aria luzia;  
 arrazoi txar etzera  
 ezer merezia,  
 nigandik lasai gorde  
 daukazun bizia.

Amezketako artzaia:

Oraintxen uzten nazu  
 ziario pozturik,  
 ez naiz egongo zukin  
 sekulan azturik;  
 gertatzen bada nunbait  
 alkar ikusterik,  
 ez dizut nik tirako  
 jotzera tirorik.

## .6

*Amezketako artzaia, entzun. Hirugarren saioa  
 (1936)*

I. Alkain:

Irugarren saio egitera,  
 artzaia, ementxe nator,  
 aurren-aurrena danoiri gabon  
 emanikan jator-jator;  
 alaitasuna dagon lekutik  
 ondoren zerbait badator,  
 ongi badakit, artzaiagandik  
 neretzat txarrik ez dator.

Amezketako artzaia:

Or al zerade, Alkain gaztea,  
 irugarren txandetan?  
 Zerbait gehiago itzegin naia  
 badaukat gaurkoan bertan;  
 lengo egunez zu falteakin  
 egondua naiz penetan,  
 hamaika poza ematekoa  
 zerade mundu onetan.

I. Alkain

Artzai jatorra zu zinaadela,  
 lendabiziko egunez  
 gau guzi artan nere biotza  
 jardun zitzaidan esanez,  
 nola bertsoa kantatzen zendun

biotzan agintasunez;  
gaur ere pozik ni jardungo naiz  
zurekin anaitasunez.

Amezketako artzaia:

Alkain, nerekin ez dezu izango  
ezertan ere nastea,  
euskaldun jator eta garbia  
zeradela ikuste'a;  
penagarria au da bakarrik:  
alkarri tiroz astea,  
ezer kulparik izan gabetan  
tiroka bata bestea.

I. Alkain:

Artzai maitea, ori egia da,  
ortan ez dago dudikan,  
biok orrela jarri gaituzte,  
jaunak, nun edo andikan;  
bañan biotza biok zabala  
gerrarik gabetandikan,  
mundua onek martxa onetan  
ez dakarki gauz onikan.

Amezketako artzaia:

Nik bezelaxe ikusten dezu  
ongi asko ondorena,  
bañan desgrazi penagarria  
allegatu da gugana:  
lau-bostengatik kendu nairikan  
berez degun zoriona,  
ikasten jardun bearrean gaur  
aztutzen ari gizona.

I. Alkain:

Nere erantzunez, aizu artzaia,  
etzera kopet-beztuko,  
pena artzen det eta gañera  
etzera ezer poztuko:  
zuk badakizu ez dietela  
nik leporikan moztuko,  
jarri diguten gerra zikiñ au  
sekulan ez da aztuko.

Amezketako artzaia:

Alkain gaztea, ori da arrazoi

garbi-garbi ematea,  
zure biotzak eta nereak  
eskatzen dute pakea;  
mundu guzian zero ederrik  
obeagorik ote'a?  
Azkenekoa nik ikusten det  
anaiak alkar iltzea.

I. Alkain:

Artzai jatorra, azkenekoan  
notizi badet zuretzat,  
nik bezelaxen pena izango  
dezula iruritzen zat:  
biar goizean Bizkai aldera  
jun bearra daukat behintzat,  
agur sendo, ta anaitasuna  
izan euskaldunarentzat.

Amezketako artzaia:

Alkain gaztea, nik aditu det  
onela nere artean:  
zuk diozunez, biar goizetik  
ez gerade alkartean;  
ongi badakit, ni triste-triste  
zu ingurutik juatean,  
ez al gerade gu alkartuko  
biok alako batean?

I. Alkaina:

Ala nai nuke, artzai maitea,  
ikustea alkarrekin;  
nai eta nai ez, nik joan bearra  
nere eginkizunarekin;  
nabillen lekun ez naiz aztuko  
zure anaitasunakin,  
bizi naizela abisu pasa  
Galartxei artzaiarekin.

Amezketako artzaia:

Negar-malkoa etorririkan  
ori dana entzunikan,  
zu bazuaz ta nik nun arkitu  
zu bezelako launikan?  
Jarrai dezagun aurrera ere  
euskaldunak izanikan,  
abisu ori egingo dizut,  
nigan ez izan dudikan.

**.7***Karlistei (1937)*

Gure karlos erregez  
 ondo gera oroitzen:  
 Euskal-Errietan  
 anaiak elkar iltzen,  
 bera Durango'n bailerik baile  
 neskatxak engañatzen...  
 Gure lege zarrak  
 esku onetan zebiltzen.

Osaba-illobak  
 asarretu-papera  
 ederki egin zuten  
 guri jartzeko gerra:  
 relijioa aotan artu  
 eta mutillak iltzera.  
 Karlista euskalduna,  
 lotsatzen ez al zera?

**.8***Sabin-etxean (1937)*

Aizu, laguna, arratsalde on,  
 poz artzen det ikustea;  
 Etxeberría ta biok gabiltz  
 gudan batetik bestea,  
 bizirik dana agertutzen da  
 nunbaitetikan ostea;  
 silloi ortatik nai al zenduke  
 guk guda irabaztea?

**Iñaki Eizmendi "Basarri"****.9***Gu euskotarrok (1936-1939)*

Gu euskotarrok len eta orain  
 gerraren etsaiak gera;  
 lana egiñaz paketsu geunden  
 aurreko zarren antzera.  
 Menditan bera gorroto biziz

bazetozen gu iltzera,  
 alegiña nork ez du egiten  
 bere burua zaitzera?  
 Gu ere orrek beartu giñun  
 eskutan armak artzera.

**.10***Guda madarikatua! (1936-1939)*

Guda madarikatua! I aiz  
 guzien errudun  
 zoratu erioan utzi duk  
 amaika euskaldun.  
 Auek dituk ire onbideak?  
 Auek ire lanak?  
 Arnasik merezi al dik, gerla  
 eskatzen duanak?

**.11***Agur, amuzkibar, agur! (1936-IX-29)*

Eusko aberri maitean alde  
 beti jokatua legez,  
 beste ametsik etzenduman zuk  
 ez egunez ta ez gabez.  
 Jeltzale zintzregorik billatzen  
 etzan izaten ain errez,  
 faxista txarrak galdu zaitue  
 euren gorrotu ankerrez,  
 nere begiak itxaso zabal  
 biurtu dira negarrez.

Zuk badakizu, Mikel zintzoa,  
 maite zintudan benetan,  
 alkarrekin ibilli oi giñan  
 sarri Zarautz'ko kaletan.  
 Alkarrekin baita ere gogoz  
 an Batzokiko lanetan,  
 zu arkitzeko poza beti nik  
 banuen bazter danetan,  
 gehiago alkar ezin ikusi  
 orain lur eder onetan.

Euskaltzalea izandu ziñan  
 besterik gutxi bezela,  
 amaika aldiz esaten zendun  
 izkuntz oberik etzala.



Birao bat inoiz ez nizun entzun,  
ain ziñan kristau apala,  
ezagutuzten zinduten denak  
badakit au diotela:  
zalantzik ez dutela egiten  
orain zeruan zaudela.

Toki askotan entzuna nizun  
gure Amuzkibar onak,  
zein ikasbide mardulak diran  
Sabin aundiak emanak.  
Eleizaren arau guztiak  
betetzen bazekien ark,  
Jaungoikoa ta Lege Zar alde  
bizia ematen duanak,  
zoriondegian zabal dauzka  
bear ditun ate danak.

Saia gaitean geren barrendik  
pekatu loiak urruntzen,  
geure irakasle Sabin bezela  
ibilli garbi ta zuzen.  
Era orretan, ai! Eriotzak  
iñortxo ez du beldurtzen,  
Mikel maitea, asia nago  
otoitz beroak zuzentzen,  
emen beian lez or goian ere  
alkarganatu gaitezen!

## .12

*Ai Mola, Mola! (1937-I-2)*

Berriro ere entzuna degu  
Mola jaunaren itz otsa,  
laster ikusi bear degula  
bere ezpata zorrotza;  
euskaldun danak zapaltzea da  
darabilkian ametsa,  
ollarran gixa kukurrukuka  
etorri baita onuntza.

Gure mutillak menperatuta  
aurrera ezin abitu,  
naiz ortarako moro beltz eta  
aleman txuriak bitu;  
emakume ta aur gaxoak il,  
erriak goitik zatitu,  
oraintxen ere txakur txar onek  
asmo kaxkar oiek ditu.

Bazter guziak auts biurtzeko  
inguratu egazkiñak,  
ortaka indar artuko baitu  
Jesukristoren dotriñak;  
guda oñetatikan urruti  
gutziz jeneral bikañak,  
auekin behintzat erronka aundirik  
ezin joko du España'k.

Bekaizkeri ta gorrotu itxuak  
zuri onuntz bultza dizu,  
ta abenda zar au ondatutzeko  
asmo biziak dituzu;  
euskoak aske giñan len ere,  
berriro laster gaituzu,  
Aitor zarraren semea berri  
orain ikasiko dezu!

## .13

*Txalo eusko apaiz agurgarriai! (1937-I-19)*

Gure erri zarra erne ikusirik  
guda beltzeko nasketan,  
eusko apaizak euren lanari  
ekin zioten benetan.  
Ainbat anima jarri dituzte  
zoriondegi bidetan,  
txalorik iñork merezi badu  
auetxek, nere ustetan.

Arrixku gogor makurrenetan  
leialki doaz mendira,  
eusko gudari bikain trebeak  
ernecki dauden tokira.  
Eurekin jan da eurekin etzan,  
noiz nai zerurantz begira,  
Kristoren ordezkari zintzoak  
olaxe jokutzen dira.

Gure gogoak gaizkatzearren  
saiatzen dira horrela,  
txingor, aize ta euri ta elur,  
jakin beti an daudela.  
Baña ez dabiltz pusillarekin  
gorrotua jaun dutela,  
beste alderdi ortako batzuk  
ikusten diran bezela.

Obenlari ta aulak geranez  
sari adimen nastua,  
ondoren datorrigun auzia  
oso daukagu aztua.  
Guziok garbi epaituzeko  
iritxiko da ordua,  
goitar Jaun onak bere garaian  
eskatuko du kontua.

**.14**

*Bertsotan denbora pasa... (1937-III-6)*

Neguak orain ditu  
bere joaldiak,  
ikusi bearko dira  
ixtillu gorriak.  
Elurrez jantzi dira  
baso ta mendiak,  
etsaia zaitzen irmo  
daude gudariak,  
Euskadi'ren aldezle  
gogoangarriak.

Gure morrosko auek  
bai trebe ta onak,  
elur eta kazkabar  
bildur ez diranak,  
parapetoa ongi  
zaitzen dakitenak,  
reketeak ikusteko  
zorutzen daudenak,  
propiñ ederra zeukak  
deskuidatzen danak!

Zuen lagunak atzerri  
alde ortan dire,  
euskoen laguntza bear  
nunbait aiek ere;  
laister etorriko dira  
ta milla aldiz obe,  
oraingo ontan egon denok  
zalantzarik gabe,  
denboraz egingo gera  
geure lurren jabe!

**.15**

*Biotzgeak zerate! (1937-IV-15)*

Etsai zakarrok, entzun zazute,  
entzun, bai, arrats onetan:  
gorrotua ta edena baizik  
ez da zuen biotzetan;  
aurrerakorik ezin ba egin  
iñoiz gure mendietan,  
emakume ta aurtxoak iltzen  
gutziz apartak orretan,  
ene maltzurrok, odoltzaleak  
zerate beintzat benetan.

Egoki asko joka zerate  
ene Durango aldean,  
meza ematen zeuden apaizak  
il dituzuten unean.  
Ainbat aurtxo ta emakume on,  
amairu moja tartean,  
etxe illara txit apurturik  
antxe gorputz loi artean...  
kontu ederra daukazute ba  
Jaungoikoaren aurrean!

Zeuen ustetan ori guzia  
euskotarrak bildurtzeko,  
gu kokilduta auldu ondoren  
geure salletan sartzeko.  
Dana batekoz bestera izan da  
lenez gain indartutzeko,  
Erroma autsi zun erria ez dago  
zuen menpean jartzeko,  
emen guztiok gertu baigaude  
aberri alde iltzeko.

Ongi dakigu milla pikardi  
egingo dituzutela,  
goiko txori zar maltzur oiekin  
saiatuko zeratela.  
Naizta etxe bat bera osorik  
utzitzen ez dezutela,  
jakin euskoak edozertako  
txit gertutuak gaudela,  
ta erri au aske izango dala  
Jainkoak egin bezela.

Ezertxok ez du izutu izan  
euskaldun jende bikaña,  
len ere edesti garbi askoa  
daukagu guk alajaña.  
Erriak puska, andre ta aurrak il,  
bestetarako ez diña,

bearbada or orrelakorik  
ez dezute usteko baña,  
bere garaian iritxiko da  
gaiztakerian ordaña.

**.16**

*Eldu da gure ordua! (1937-IV-30)*

Gorrotu beltzez josirik dator  
etsai txar amorratua,  
bera da gure erri apañak  
grina gaiztoz apurtua.  
Ainbat aurtxo ta giza-emakume  
betiko lurperatua.  
Jeiki, euskoak! Zutiñik denok!  
Eldu da gure ordua!

Gure erri zar au ondatutzeko  
oiek dakarten gogua!  
Gu euskotarrok irentsitzea  
amets eten gabekua.  
Gaur gure jokerari begira  
jarria dago mundua.  
Jeiki, euskoak! Zutiñik denok!  
Eldu da gure ordua!

Edesti bikain garbia degu  
anai maiteok, lengua,  
nolanai ezin utziko degu  
ezereztuta, galdua,  
Gora biotzak! Eman arpegi,  
jaso dezagun burua...  
Jeiki, euskoak! Zutiñik denok!  
Eldu da gure ordua!

Gauza bat euki bear genuke  
oso gogoan artua:  
gure erriaren etorkizuna  
orain dala agertzekua.  
Ez dezagula galtzera utzi  
irabaz leiken jokua,  
il edo bizi gudara denok,  
eldu da gure ordua!

**.17**

*Paxistak ikaraz (1937-VI-10)*

Lengo gabez etzan giro  
Lemoaitz gañean,  
pusil eta bonba zarrak  
gogotsu lanean;  
galtzetan estu ziran  
unetxo batean,  
afaitan jandakoak  
iya erdi botean,  
aizeakin bildurtuta  
gu gñan ustean.

**.18**

*Gudari asko datoz (1937-VI-11)*

Indarrez artu dituzte  
askotxok pusillak,  
ortaraxe bearturik  
paxisten makillak;  
andik igesi badatoz  
sekulako pillak,  
osatu aldra aundi  
edo kuadrillak,  
au dek zuen tokia ta  
etorri, mutillak!

**.19**

*Lizunkeria nunai (1937-VI-12)*

Donosti'n da Gasteiz'en  
gaur zer gertatzen dan,  
bear dan bezela iñork  
ezin lezake esan,  
aragikeri lizuna  
zinetan da plazan,  
Afrika'ko basatiak  
darabilten gisan,  
katoliko zuzen oiek  
orra zer dabilzan!

**.20**

*Itzaldi bat (1938)*

Bazterrak erre, kixkali,  
txikitu ta autsi,

emakume ta aurrik  
bizirik ez utzi;  
erlijioan alde  
moro zar ta guzi,  
katolikotasunean  
munduko nagusi,  
olako dotriñik guk  
ez gendun ikasi.

Gure apaiz on, zintzoak,  
gorrotu betean,  
or sartu dituzute  
betiko lurpean;  
ta eunka daukazute  
zeuen katepean,  
katoliko izen ori  
bego apartean,  
olakorik eztegu nai  
euskaldun artean!

## Estepan Urkiaga “Lauaxeta”

.21

*Agur ene herri, jaunak naroa (1936)*

Agur ene Herri Jaunak naroa  
aberri eder argira  
neure negarrak jarion naukan  
zeure mendiai begira

Seme bat zeukan baina etsaiak  
kendu eutsoen bihotza  
soin ederrera ixuri jakon  
maietz bateko goiz hotza

Gurutz deunari musu eginaz  
alde egin eutson mundutik  
Kristoren gentza aho gainean  
loratu jakon gazterik

Jaunaren maitez Aberri maitez  
ez eban euki bildurrik  
eta zeuretzat zorion hutsa  
opaldu eutsun gogotik

Ene Herri ona zagoz betiko  
Kristoren fede betean  
holan zoriona bilauko dozu

hemen ez bada zeruan

Heriotz deuna aurrean daukot  
sinistu bada euzkoa!  
Ene Herri?aske izan artean  
zaindu Josuren legea!

Eder jatazan euzko bazterrak  
eder itsaso zabala  
baina oraintxe ederrago jat  
heriotz honen itzala

Gaztea nozu bizitz honetan  
ta ez jatan palta gauzarik  
ene Jaun gogor-aldi honetan  
ez naizu itxi eskutik!

Ez bedi egin neure gogoa  
zeure naia bai ostera  
gogoa doa zeru argira  
gorputza lur ilunera

## Joxe Mari Lopetegi

.22

*Gezurjentzat (1936ko abendua)*

Ordu biak laurden gutxietan  
azaruaren zazpian  
pinpi ta panpa kañonazuak  
Irunen ta Ondarribian  
zer ote ziran ainbeste soñu  
altxatu giñan abian  
obetoxiago entzuteko  
obetoxiago entzuteko  
itsasertzera joan giñan.

Bi andre leyotikan  
parrez beriala  
Madrid artu zalako  
soñuak zirala  
oik uste zuten zala  
Madridentan sartzia  
kanpantorrera joan ta  
ezkillak jotzia

Nik buruari dardar egin ta  
au esan nuen aurrena:

gezurra zala soñu ayekin  
itxura egiten zutena  
Bizkai aldetik gure anaiak  
mugitzen asi zirala  
ayen aurkako jendia bildu  
ayen aurkako jendia bildu  
ori zala bear zuena.

Nik esanda bezela  
urrengo goizian  
Irun ta Ondarribitik  
zenbat joan ziran  
oik uste zuten zala  
Madrident sartzia  
kanpantorrera joan ta  
ezkillak jotzia.

Atabalakin tanborra juaz  
gizon bat deika atera  
irakurririk erriari deitzen  
alkate jaunana papera  
seietan musika soñuakin  
guazen guztiok dantzara  
Mondragoi ere guria da-ta  
Mondragoi ere guria da-ta  
gizona zer ari zera!

Orain erdi gordian  
zokuan or daudez  
erdiak erotuta  
nora joanik ez.  
Oik uste zuten zala  
Madrident sartzia  
kanpantorrera joan ta  
ezkillak jotzia

Erri guztia engañatuzten  
gezurren modu txarrian  
orrelakorik ez da egiten  
gizon zintzuen aurrian.  
Zuek zauztela denen nagusi  
Españiako lurrian  
ez daukazute ezkillak jorik  
ez daukazute ezkillak jorik  
Madriko kanpantorreran

Arritzen naiz gauz ori  
burura etortzia  
eta oinbesteraño  
gizona erotzia.  
Oik uste zuten zala

Madrident sartzia  
kanpantorrera joan ta  
ezkillak jotzia

## .23

*Ekaitza (1936ko abendua)*

Uztaillaren emeretzia  
egun beltz ta pozoitsua  
ezagutzen zen bazetorrela  
ekaitzakin erasua  
berialaxe nabarmendu zan  
tximista gaiztuan sua  
odol-gorrituz gainbera asi zan  
ugaldero Bidasua  
amaika amaren seme galdu da  
ai seme gizagaxua

Atzera egin da galdua zegon  
gure erri doatsua  
orregatikan burua gora  
eman genduen pausua  
egazki txarrak bonba goitikan  
nunaitik kañonazua  
ekaitzak kazkabarra bezala  
bazetorren balazua  
amaika amak gaur esaten du  
ai seme gizagaxua

Ez izan arren guk Españían  
bizitza ain erosua  
askatasuna maite degunak  
gerez izan o... itsua  
aberats aundinaiatik dator  
emengo naste osua  
oinpean beti eduki naiak  
langille edo beartsua  
amaika amak negarrez dio  
ai seme gizagaxua!

Burnizko gurdi gudako egiñak  
etsaian itxuratsua  
aurreratzen zan ardi tartera  
sartzen dan bezela otsua  
pinpi ta panpa garbitzen zuen  
zijuan inguratsua  
zerekin gogor egiñik guk ez  
naiz izan biotz jasua  
amaika amari oroitzen zaio

ai seme gizagaxua!

Iretsi nairik nola enarak  
iretsitzen dun eltxua  
berrogeita bost egun onela  
ura bizitza pisua!  
Irungo erri zoragarria  
zindo eta mamitsua  
bertsuaren laguntzalea  
zuzena eta zintzua  
amaika amari aztuko ez zaio  
ai seme gizagaxua!

Falanjistakin reketetarrak  
zer gizarte indartsua  
beren laguntzaz zeukatelako  
gudari gaizto saldua  
alkarregana bildu dirade  
bekaizkor ta zitaltsua  
aurka goazen alkarturikan  
anai pizkor bulartsua  
ama Euzkadik lagunduko du  
aurrera seme gaxua!

## .24

*Gora Euzkadi askatuta! (1937-VIII-14)*

Euzkadi zeñek ez du maiteko  
toki alai ta txukuna  
gazte danaren alaitzailea  
zar guztiyen osasuna  
nun ekusten da emen dan bezin  
modu garbiz naitasuna  
gure sorleku maitagarria  
amaika bider entzuna  
odoi azpiyan danen gañetik  
Euzkadi ta euskalduna.

Guda txar onek nasiyak gabiltz  
ez genduen au merezi  
bekaitzdun batzuek diralako  
izan nayian nagusi  
nola agindu nai zendukete  
ez badezute ikasi  
obe dezue euskal lurretik  
kanpora juan igesi  
emen bear diran agintzailleak  
Euzkadik ditu berezi.

Euskalduna naiz, euskaldun nai det  
len orain eta aurrera  
ama maitea zure semeak  
ementxen bildutzen gera  
euskal izkuntzik nai ez dutenak  
egin digute sarrera  
oiturak galerazi naian  
sarturik gure lurrera  
egun gutxiko daudez Euzkadin  
aurki bear dute atera.

Madrid aldean gure anayak  
semeak eta lagunak  
gudari pizkorrek dabiltzala  
geyenak gaudez entzunak  
Oviedon ere badabilzate  
mutil pizkor ta jardunak  
Aragoin daude katalanakin  
gure anai euskaldunak  
noranai juanda ondo ekusiyak  
izen eder au degunak

Oviedon lanak bukatutzian  
guztiyok Euskalerrira  
karrikan dauden basurde zarr oik  
biral ditzagun mendira  
gure oiturik nai ez dutenak  
emen zertarako dira  
beren isatsak biurturikan  
bijuaz Alemanira  
gure biziyan begiz aurrean  
ekusko ez diran tokira.

Bear bezela garbitutzian  
aurka ditugun etsayak  
lore ederrez jantziko dira  
zuatz ederren tantayak  
mendiyak eta zelayak  
bere kolorez apaindurikan  
ur txirripak ta ibayak  
gure lurrean pake onean  
biziko gera anayak.

Gizagabe ta bekaizkeriya  
guda edo gerratea  
anaitasuna biotz prestua  
osasuna da pakea  
urte gutxitan zuzen dezagun  
egin diguten kaltea  
gorontza lasai bularrak zabal  
ama Euzkadi maitea

askatasunez biziko gera  
pozkidaz alai zaitea

Erbeste aldeko fatxista txar oik  
lotsa guztiya galduta  
Franco ta Queipo laguntzen dabiltz  
gure lurrera sartuta  
Guadalajaran modu galanta  
daukate arrapatuta  
Madridenten sartu dira galanki  
katez eskuak lotuta  
Queipo poz arkin bart arratsian  
amildu zan mozkortuta

Entzun anayak entzun lagunak  
entzun agintariyari  
ardorik gabe utzi dezagun  
mozkor gezurti txar ori  
Burgetek eskutitzxo batean  
esan dizkio berari  
nola daguen lotsagabe bat  
falanjistaken gidari  
oinperatuaz gezurti danak  
gora España ta Euzkadi

Nola ez esan itz eder abek  
.....  
Euzkadiz arkitzen gera  
esateko indartuta  
fatxistan aurka gaitean danok  
anai lagun maitatuta  
oju egiñaz jarrai dezagun  
gizontasuna artuta  
mundu guziko ezkerdarrakin  
Gora Euzkadi Askatuta!

## Sebastian Salaberria

.25

*España'ko gerra tristeari (1936-1939)*

Amaika bider esan izan det  
mutil koskorra nintzala:  
ogei bat urte nitunerako  
gerra urbilduko zala.  
Zoritzarrez bai etorri ere  
nik pentsatuta bezela,  
ezin ukatu bala tartean  
larri ibili naizela,

samindurikan diot gauzarik  
negargarriena dala.

Milla beatzireun ogei ta amasei-  
garren urtean ain zuzen,  
Uzta-illaren emezortzian  
gerra triste au pixtu zen.  
Nik ogei ta bat urte neuzkan da  
soldadu berialaxen,  
agintariak gogor zioten:  
“Fusillak artuta goazen!”  
Gaur nik bi oñak osorik neuzkan  
ori gertatu ez bazen.

Neronek ere igartzen nion  
iritxi zala denbora,  
ta larriturik esaten nuan:  
“Soldadu joan bearko da”.  
Eunka mutil gu Donosti'ra,  
lenengo Goberniora;  
ardien gisa bildu ginduzten  
danak alkarren ondora,  
gero emendik sarjento batek  
Norte'ko estaziora.

Treanean sartu, Aitaren egin,  
txorakeriak utzita,  
gerrate ontan ilko giñala  
baigeunden oso etsita.  
Negarrez asi giñan geienok  
ezin genion eutsi-ta,  
jende guztia kupiturikan  
gu ain triste ikusita,  
aiek eta gu agurtu giñan  
begiak malkoz bustita.

Iritxi giñan Iruña'ra ta  
geienak infanterira,  
larriagoak ziran batzuek  
ta aiek artillerira.  
Bertan ikasi instruzioak  
eta gero Bitori'ra,  
gauz auek nola gertatu diran  
zuzen datoz memorira,  
nola eraman ginduzten danok  
Billarreal'ko mendira.

Martxoko illaran azken aldera  
guk lenengo atakea,  
kañoi, egazkin, mortero, fusil,  
danak antxe jo ta kea.

Eun bat metro beti aurretik  
gure gidari tankea,  
egun guztian danok laixterka,  
ura orduko nekeal  
Pentsatzen gendun berialaxen  
egingo zala pakea.

Artu genduan Billarreal da  
jarraitu Bizkai aldera,  
kontrarioak atzeraka ta  
gu geienean aurrera.  
Bizi giñanak asko zauritu,  
iltzen ziranak lurrera;  
mendi oietan komeri latzak  
ikusiz ibili gera,  
ta aizkenean etzan goxoa  
Yurre erriko sarrera.

Beste aldetik aitona zar bat  
etorri zan guregana,  
esanaz nola utsik zegoan  
Yurre erri ori dana.  
An sartu giñan xinisturikan  
gezurti aren esana,  
burruka gogor ekin genion  
ta lurrera iltzen zana,  
berialaxen neuri bi tiro  
oin bakoitzetikan bana.

Lagun on batek atera niñun,  
ain negon trantze txarrean,  
antzika neure zaurietatik  
odol ustua bearrean.  
Geroxeago ni Bitoria'n  
bi medikuren aurrean  
oña moztuta jarri niñuten  
oe zuri ederrean,  
ta gaur Iruñe'n arkitutzen naiz  
ospital militarrean.

Aldamenean dagon batentzat  
egoten naiz kupituta,  
nor ez litzake urrikalduko  
oin biak motzak ditu-ta?  
Zutik jartzeko esperantzik ez  
orrenbeste sufrututa,  
gure Jainkoak bakarrik daki  
nola gauden geldituta,  
geuren sasoirik ederrenean  
betiko elbarrituta.

Dotriñak garbi esaten digu,  
nai badegu irakurri:  
inbiria ta gizon iltzea  
nundik zaizkigun etorri.  
Kain gaiztoak Abel il zuan,  
begira zaiogun orri;  
baña oraingo gerra triste au  
ezberdiña izugarri:  
anaiak bata bestea iltzen  
gorroto gabe alkarri.

Gure aurreko guraso zarrak  
askotan esanak daude:  
gerrik onena baña pakerik  
txarrena degula obe.  
Jesus maitea, ordu guztian  
zure bearrean gaude,  
eskatzen dizut Zu zeralako  
zeru lurren Jaun da Jabe:  
pake gozoa eman zaiguzu  
odolik ixuri gabe.

## .26

*Neronek tirako nizkein (1936-1939)*

Milla beatzireun gañera ogei ta  
amaseigarren urtian,  
gerra triste bat sortu zitzaigun  
Españiyako partian;  
esan biarrik ez dago zala  
soldaduentzat kaltian,  
ni ere kintak arrapatuta  
or ibili naiz tartian,  
amaika amaren seme sartu da  
urte auetan lurpian.

Bizkayan Yurre izena duan  
erri batian sartuta,  
bizirik juxtu atera nintzan  
sari ederra artuta;  
Mayatzak ogei ta lau zituan  
egunian erituta,  
kamilleruak jaso niñuten  
geyena odol ustuta,  
ospitalera ekarri naute  
tiruak anka moztuta.

An bi anayak alkarren kontra  
giñala guk ez genekin,



inkurriorik gabe alkarri  
tiroka fusillarekin;  
urrena berriz ospitalian  
bildu giñan alkarrekin,  
negar egiñaz berak esana  
ordun pena ederrarekin:  
“Tre oiñ oyek jotako balak  
NERONEK TIRAKO NIZKIN!”.

### Kepa Enbeita “Urretxindorra”

.27

*Usparitxa-Jauregi'tik Txaurburu-etxera  
(1937)*

Gure urtarrilak gaur  
ogeta iru egun,  
sarritan ixan gara  
or maikide lagun.

Aurten ez ixan, baña,  
bestetan lez bardin,  
ta aldian aldikua  
biarko da egin.

Gaiztokian ezta gaur  
txerren bat bera be,  
gizadi-ondatzalok  
andik urten dabe.

Eta gixadi-buru  
egiñik txerrenak  
sortu dauzan matasa,  
gorroto-edenak!

Zoritxar au gugandik  
ayenatu dedin,  
kistar naibagetuok  
zer baña, zer egin?

Ildakoen gogaldez  
otoi egin daigun;  
bixion aldez be bai,  
otoi gau ta egun.

Urtzi-geide-maitezko  
erruki-egintza  
eskier dan ezkeru

bakiaren giltza.

### Patxi Lazkano

.28

*Jose Manuel, atera nua (1936-1939)*

Jose Manuel, atera nua  
bertso berriyak kantatzen,  
orain daukazun bizimodutik  
asi biazu muatzen:  
jai eta aste nobiyarekin  
or zabiltza pasiatzen,  
enteratua nago laster zu  
omen zerala ezkontzen.

Andria artzeko asmuhan zaude,  
utzi opiziyu ori:  
fusilla artuta al dan lenena  
onera biezue etorri;  
defendi zagun gure España  
ondo egiñaz askori,  
eta piska bat itxoiteko  
esakiyok nobiyari.

Andria artzeko garai txarra dek,  
gerra biagu bukatu,  
ezkontza ori piska bateko  
biarko dek atrasatu;  
andregaiari esan akiyok  
ez deiela asarretu,  
eman akiyok libertadia  
nai ba'u beste bat billatu.

Gerra bukatu arte egon ai  
eta gero ondorian  
neskatxak sobra ibilliko'ituk  
etxian eta kalia;  
baldin ontatik salbatutzen b'aiz  
ezkondutzeko irian,  
biyok andria artuko'iagu  
esposariyo batian.

.29

*Bertso berriyak jarri nai ditut (1938-III-30)*

Bertso berriyak jarri nai ditut  
nere pasadizuentzat,  
motibua're badaukatela  
ala iruditutzen zat.  
Suerte txarra tokatua da  
gerran gabiltzan auentzat,  
besteren berri ez dakit ondo,  
ala izan da neretzat,  
ai zer negarra etorriya da  
senire-gurasuentzat!

Milla beatzireun ogei ta  
amazazpiko urtian,  
kuartelian sartu ninduten  
Donostiya'ko partian.  
Suerte ori izan genduen  
denak alkarren artian,  
amaikak ori ondo badaki  
zala Martxuen labian,  
geroz askotan egondua naiz  
lo egin gabe gabian.

Martxuak ditu ogei ta amar,  
nago Aragon'go partian,  
oi ta bi urte kunplitzen zaizkit  
emengo mendi batian.  
Aspalditxuan onela gabiltz  
askoren errematian,  
geren biziyak arraixkatuaz  
il ta erituen tartian,  
ibillera au etzait aztuko  
bizi naizen bitartian.

Orra lau bertso, ama, nik jarri  
bedorren kontsolagarri,  
urte betian juntatu gabe  
ni nautelako ekarri.  
Pentsatutzen det askotan triste  
egongo dala bedorri,  
laster gerade etxian eta  
lasai ta kontentu jarri,  
beste oinbeste esan bezaio  
etxeko erraña orri.

### .30

*Kantu lanian asi biar det (1938ko apirila)*

Kantu lanian asi biar det  
lendikan daukaten griñez,

zerbait arrazoi esplikatzeko  
Jesukristoren dotriñez;  
ogei bat urte kunplitu zaizkit  
ikasi nubela oñez,  
besteren mende gabiltza eta  
nora guazen jakiñ ez.

Ogei ta bi urte kunplitu zaizkit  
mundura sortu nintzala,  
orain artian nunai eman det  
gizon tajuzen itzala;  
pakeosua beti izan naiz,  
umilla ta serbitzala,  
okasiyuan sartu gaituzte,  
Jaunak bedeinka ditzala!

Naziyu ontan lautatik iru  
bizi giñanak pakian,  
jarri gaituzte okasiyuan  
askoren errematian;  
nere ezagunak pranko badira  
sartutakoak lurpian,  
ta beste asko beren denbora  
guzirako itzalpian.

Jaunak, emango nituzke ondo  
kasu onen notiziyak,  
bañan etzaigu guri komeni  
esplikatzia guziyak;  
ainbeste leku pasa ditugu,  
asko ditugu ikusiyak,  
bestiak ondo bizitziagatik  
jokatzen geren biziyak.

Esaten dute: "Ekarri zagun  
Jesukristoren legia",  
ori egiya dala uste-ta  
bizi diranak badia.  
Baña guziyak nai dutena au da:  
salba bakoitzak beria;  
Jaunagandikan datorrena ezta  
olako formalidadia.

Sei bertso berri kantatu ditut  
deskantsatzeko barrena,  
mundu guziyan pakia dala  
diye gauzik ederrena;  
modu orretan konprendi zagun  
nik esplikatzen detena  
zeruan nola sartu liteke  
gerra au sortu zubena?

**.31***Milla beatzireun da (1938)*

Milla beatzireun da  
oi ta emezortzi urte  
Kristo jaio zanetik  
onera arte;  
gerr'au dabillega're  
bi izan biaute,  
nere entendimentuak  
ala esan naute.

Legerik ez bete,  
ordenak aparte,  
juramentu fuerte,  
Españiya'n parte,  
gezurtzat alferrikan  
ukatzen dute.

Askok esaten dute:  
"Au negoziyua!  
Nik badet Jainkuakin  
partiziyua!"  
Zuzen artu ezkeru  
deklaraziyua,  
geienak Judasekin  
dute soziyua.  
Zer ofiziyua!  
Oin kondiziyua  
da ernegaziyua,  
ez deboziyua,  
euskaldunen kontrako  
traiziyua.

Euskaldunaren kontra  
badaukate griña,  
asko ori ez degu  
pentsatzen baña;  
gauza guziyak badu  
munduan tamaña,  
guretzako dutena  
sufritu eziña,  
aspaldi egiña;  
nik daukaten miña,  
edozeñek aña,  
biartua zaña;  
billatu egin bear  
orren ordaña.

Orra lau bertso jarri  
beatzi puntuan,  
gusto duen guziyak  
artu goguan;  
senper ikusten pranko  
ai gera munduan,  
pobre inozentiak  
alkarren onduan;  
estadu senduan  
jokatzen genduan,  
baña beranduan  
lan egin genduan;  
amaika il digute  
azken orduan.

**.32***Urriyak ditu ogei eta bi (1938-X-22)*

Urriyak ditu ogei eta bi  
astera nua kantuan,  
osaba Andresi esplikatzeko  
zer posturetan naguan;  
jan da erana urri antzian,  
gauza ugari goguan,  
obetuago esango dizkat  
gerr'au bukatutakuan.

Gabak askotan pasatzen ditut  
trintxeran lo egin gabe,  
egunez berriz zorriyak iltzen,  
beti enredutan gaude;  
obe litzake gerra bukatu  
eta etxian bagaude,  
batzuk biar da, osaba, beok  
aldi ortan ondo daude.

Onta ezkeru au esango det  
gertatuzen dan kasua:  
lo egin gabe pasatzen degu  
iñoiz aste bat osua;  
amaika aldiz gogoratzen zait  
nere paraje gozua,  
osaba, asko akordatzen da  
zure illoba gaxua.

**.33***Bertso berriyak ateratzeko (1936-1939)*

Bertso berriyak ateratzeko  
agindutzen dit barrenak,  
utzi ditzagun alde batera  
gure tristura ta penak;  
esplikatzeko asmua daukat  
nere jakinduri denak,  
garbi esanaz gaur zein diraden  
gerratik ondo daudenak.

España ontan gerra sortu zan  
edo digute ekarri,  
apenas onek kalte egin diyen  
Aleman da Italiya'ri:  
berentzat txartzat zeuzkaten armak  
bialdu digute guri,  
ta España'ko inozentziak  
zillar da urriak berari.

España'ko zillar da urriak,  
gañera ardo ta gariyak,  
aprobetxatzen ari dirade  
Aleman da Italiya'k;  
guretzat diru orde papera,  
keatza dirui ogiyak,  
entzuten dunak sinista zala,  
obe dirade egiyak.

Estranjeiakin alkar artuta  
gerrara ziran atera,  
gosiak zeuden amorratzen da  
gobiernua jatera,  
eta gañera Euskal Erriyak  
berarenganatutzera;  
artuagatik utzi biarra  
etorriko da atzera.

Jaungoikuaren legian billa  
dabiltzala dute esan,  
juanagatikan errezo gutxi  
egiten dute elizan;  
bi urti ontan mendiyen gaude,  
mezetan ez gera izan,  
bai Jesukriston birtutiakin  
ateria izan bazan.

Dozen erdira osatu ditut,  
ixildu egin biar det nik,  
ortik aurrera segitutzeko  
ez baitadukat indarririk;  
leno gosiak bakarra zegon,

orain sentitzen degu bik,  
denak dakigu: ezta ostotzen  
igartutako arbolik.

## Mixel Dargaitz “Otsondo”

.34

*Guda gaitzat hartuta (1936ko urtarrila)*

Gerla eta bakea ez dire  
mundu honetan berdinak;  
gerlak beti ematen baiditu  
bazter guzietan minak.  
Badakizkigu negar gorriak  
egundo're ez atseginak:  
gerlan aragi baino nai'o'itut  
bakietako sardinak.

## Felix Iriarte

.35

*Guda gaitzat hartuta (1936ko urtarrila)*

Nik ere pakea dizut  
egitako maitea,  
horrela esplikatzen dut  
pertsu au erraitea.  
Nai duzuiat adirazi  
gerlak duan kaltea,  
bainan euskaldun artean  
segur dugu pakea.

## Beñat Larralde

.36

*Gerlari (1939)*

Jainkoak dezagula  
bakea etxean;  
bakea auzoekin  
bai eta errian.  
Bakea erresumek

algarren artean,  
bakean ar gaitzala  
guziak iltzean,  
gloriaz gozatzeko  
eternitatean.

### Jose Kruz Urrutia

.37

*Arto jorrara (1936-1939)*

Arto jorrara juten ziraden  
ateak zabal utzita,  
lau bat orduan etzan egiten  
etxe aldera bisita.  
Gaur danak itxi, zakurra atean,  
bat guardian jarrita,  
arrazoiaren faltik ez dute  
gaixtua bada nun-nahi ta.

### Manuel Olaizola “Uztapide”

.38

*Guda gaitzat hartuta (1936ko urtarrila)*

Kaltegarriak dira guretzat  
beti emen gudateak,  
badakizute lenago ere  
nola itxi ziran ateak.  
Gauza tamala iruitze zaigu  
beti gudara joateak,  
bestela zertan dira emengo  
aberatsen izateak,  
gerraren kontra jaikiko gera  
Euskalerriko jendeak.

### Juan Jose Lujanbio

.39

*Guda gaitzat hartuta (1936ko urtarrila)*

Gerra kontuan ni aritzea  
ongi pentsatu ezkerero,

nere iritzi au entzutea  
ez da bat'e misterio.  
Egun batean esnatu giñan  
gorrotatuz ezin geio,  
anaiak berdiñ ikusten dira  
alkarrerren kontrario  
eta horrela jarriak ditu  
gerra degula merio.

### Juan Kruz Zapirain

.40

*Eztago urrerik, ezta zillarrik (1936-1939)*

Eztago urrerik, ezta zillarrik  
mundu onetan dagonik,  
nor bere etxian jaun eta nausi  
izatia aña danik.  
Gu galdu naiez dabiltz etsaiak  
utsegin gabe egunik...  
baina gutarrik izango ote da  
morroi bizi nai duenik?

### Joanes Harriet “Permundo”

.41

*Guda gaitzat hartuta (1936ko urtarrila)*

Gerla gauza izigarria,  
au bear da konprenitu;  
lehenekua porbatzeko,  
naiko zalakuan nauzu.  
Orregatikan aditutzian  
kezka gogor bat zait sartu:  
bake saildian bizitzea nik  
beti izan dut desiatu.

### Ezezaguna

.42

*Txistua tamal dago (1937-IV-18)*

Ez da entzuten une abetan

Lizaso'n txistu-soñuba.  
 Ixilik dago! Zer ote dauka,  
 zer du orren mutuba?  
 Lenago orren alai  
 entzuten gendun nun-nai  
 ain maite degun txistuba.  
 Negarrez nago! Erail digute  
 txistulariyen maixuba.

Txistu jotzalle bikaña intzan  
 inun onarikan bazan,  
 euzko jai on bat baldin bagendun  
 Alexander beti an zan!  
 Euskal-erriyan ezik  
 ta berdin atzerritik  
 bere txistuba nun etzan?  
 Urretxindorran abestiyen lez  
 goxo xamur jotzen ukan.

Oraindik ez det sinistu nai-ze  
 Alexander illa danik,  
 orain egun gutxi diradela  
 entzun nun bere auetik:  
 "Datozela onuntza,  
 alperrikan dabilta!  
 Ez diat oien beldurrik;  
 gu zapaltzeko maltzur oietxek  
 jan bear ditek oraindik".

Gudari trebe zintzoa eta  
 inoren beldur gabea,  
 gudarijenzat ezin zinteko  
 maitasun mutil ohea!  
 Maitetasun osoaz  
 guztiyoi lagundubaz  
 pozturik zeukan jendea.  
 Tiru txar batek eraman digu

txistu jotzalle gaztea!

Guda oñean egonagatik  
 umorea etzun galdu  
 zenbat alditan abestu euben:  
 "Iya guriak egin du,  
 ez oraindik umildu,  
 alkarrengana bildu,  
 anaiak alkar lagundu,  
 paxista oiek egin ditzagun  
 beti-betiko birrindu."

Erail digute gudari on bat  
 bere adiñ onenean,  
 ez degu gehiago ikusiko  
 bere lagunen artean!  
 Au da egon eziña  
 eta biotz samiña  
 daukatena gorputzean!  
 Baña zeruban poztuko gaituk  
 gero alkar ikustean!

Artu zak nere lagun zar orrek  
 azken agur au biotzez,  
 bizitzen banaiz ez nauk sekulan  
 aztuko ire izatez.  
 Jaunak artu dezala  
 seme on bat bezala  
 bere altzoan poz-pozez,  
 ama on batek bere semea  
 biotzez maitatzen dun lez!  
 Agur, Lizaso, ikusi arte  
 donokiyen zorionez!